5.— Leku geografiko bat Euskal Autonomia Erkidegoari eta beste autonomia-erkidego bati eragiten dien eremuan dagoenean, Euskal Autonomia Erkidegoak izen ofizialtzat hartutako izenari eutsiko dio. Eragindako autonomia-erkidego horrekiko lankidetzat bultzatuko du Eusko Jaurlaritzak, izendapen bikoitzak erabiltzeko akordioak bilatzea helburu. (*Dekretuan ez badago ere, hauxe hartu behar da kon-tuan: gatazka sortuz gero, IGNko Zuzendaritza Nagusiak erabakiko du, 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera*). Leku geografiko bat Euskal Autonomia Erkidegoko bi udalerrri edo bi lurralde historiko edo gehiagoren eremuan badago, izen bera eta bakarra erabiliko da.

6.— Lehenetsuna emango zaio genero-ikuspegiari.

7.— Toponimoen osagai espezifikoak ez dira beste hizkuntza ofizialera itzuliko, salbu eta jatorrizko izena berreskuratzeko bada eta dokumentazio historikoan forma hori jasota badago. Toponimoari, azalpen moduan, generiko estandarra erantsen bazaio haren izaera geografikoa zehazteko, lehenetsuna emango zaio generiko horren euskarazko bertsioari, hargatik eragotzi gabe beste hizkuntza ofizialera ere itzuli ahal izatea.

8.— Leku geografiko zehatzen izen berriak ofizialdu behar direnean, honako arau hauek beteko dira:

- a) Lehenetsuna emango zaie euskarazko izenei, gaztelaniazko izenen aldean.
- b) Aztertuko da dagokion lekuan bertan edo inguruan izena zehazteko erabil daitezkeen toponimorik badagoen, eta hala bada, beste irizpide erabilgarri batzuei baino lehenetsun handiagoa emango zaie toponimo horiei.
- c) Toponimo berri horiek pertsona-izenik badute, lehenetsuna emango zaie emakumezkoen izenei.
- d) Administrazio eskudunak Euskaltzaindiaren irizpena jaso ondoren egingo du bere proposamena.
- e) Artifizio handiko izenak, izen exotikoak edo merkataritzari lotutakoak baztertuko dira, eta atzerriko hizkuntzetan daudenak ere bai.

Prozeduraren oinarritzko arauak (45. art.):

1.— [...]

2.—Oinarritzko arau hauek bete beharko dituzte beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak onartzeko udalek ezartzen dituzten prozedurek:

- a) Prozedurari hasiera emateko, dagokion organoaren aldeko erabakia beharko da.
- b) Espedientea jendurrean jartzeko epea ez da 30 egunekoa baino txikiagoa izango, eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean jarriko dira iragarkiak.
- c) Euskaltzaindiaren irizpena beharko da.
- d) Dagokion udal-organoaren behin betiko onarpena beharko da.

3.— Behin udalak toponimoa edo leku geografikoa onartuz gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia autentikatua bidaliko dio hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

4.— Espedienteari sarrera eman eta handik hiru hileko epean, Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen sailak aurka egin ahal izango du, honako alderdi hauei dagokienez:

- a) Funtsari dagokionez, udal-erabakia ez badator bat tokiko toponimia-rekin, edo dekretu honetako 43. eta 44. artikuluetan jasotako printzipio eta arauak betetzen ez baditu.
- b) Prozedurari dagokionez, dekretu honetako 45.2 artikuluan adierazitako alderdi organiko eta izapideei buruzkoak betetzen ez badira.

Hiru hileko epe horretan ez ba zaio onarturiko izenari aurka egiten, izena Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatu dadin aginduko du Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen sailak.

5.— Izen ofizialen arteko desadostasunik egonez gero, Gobernu Kontseiluak ebazpen bidez hartuko du azken erabakia, artikuluko 2. apartatuko c) letran adierazten den Euskaltzaindiaren irizpena kontuan hartu ondoren.

6.— Toponimo edo leku geografikoaren izena Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzen denetik aurrera ofiziala izango da.

7.— Behin izen ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatu eta gero, hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak horren jakitun ipiniko du Estatuko Administrazioa, Estatuko izendegi geografikoan ere inskriba dezan, bai eta nazioarteko erregistroetan eta instantzietan ere.

8.— Dekretu honetako 44. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan jasotako kasuetan, prozedura sinplifikatuari jarraituko zaio. Prozedura horretan, bada, izapide hauek egin beharko dira: hasierako onarpena, informazioa jendurrean jartzea, behin betiko onarpena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean inskribatzea.

Beraz, toponimoak ezartzeko eta ofizialtzeko 179/2019 Dekretuak ezarritako prozedurak, irizpideak, arauak eta printzipio gidariak oso baliotsuak izango dira EAEko toponimia-lanak koordinatzeko. Dekretuak zehaztu ez dituen kasuetarako Toponimia Batzordeak onartutako lan-metodologiak irtenbidea ematen du. Adibidez, udal batek baliabiderik ez duelako edo beste arrazoiren batengatik ez balu ezer egingo bere toponimia ezartzeko eta ofizialtzeko, Jaurlaritzak ofizioz jar lezake martxan hori egiteko prozesua, betiere, udalari jakinarazi eta gero.

#### 4. EAE-KO IZENDEGI GEOGRAFIKO OFIZIALEKO TOPONIMO OFIZIALEN HEDAPENAREN ETA ERABILERAREN JARRAIPENA EGITEA

Toponimo ofizialak EAEko Izendegi Ofizialean badaude ere, oso garrantzitsua da horien hedapen egokia egitea. Horregatik, HPSk izen ofizialetan aldaketak gertatzen direnean, horren berri ematen die hainbat erakunderi, hedabideri, enpresari eta norbanakori, aldizkari ofizialean argitaratutako iragarkia bidaliz. Bide batez, EAEko Izendegi Geografiko Ofizialaren berri ere ematen zaie.

Baina, hedapenaz gain, HPSrentzat oso garrantzitsua da toponimoen erabilera okerrak detektatzea; horregatik, atzeman eta gero, dagokionarekin harremanetan jartzen da, informazioa eskaintzen dio eta, ondoren, zuzenketak burutu direla egiaztatzen du. Hauek dira aztertzen direnak:

- Administrazioan: errepideetako seinalizazioa, kartografia, aldizkari ofizialak, argitalpenak, barneko dokumentazio idatzia...
- Hedabideetan: idatzizko testuak, ahozko emanaldiak, publizitatea...
- Hezkuntza-sisteman: testuliburuak, bestelako materialak, mapak...
- Webguneak: udalenak, dendanak, banketxe eta aurrezki-entitateenak, bilatzaileak, eguraldia, turismoa, etab.

Bestalde, kontuan izan behar da 179/2019 Dekretuak toponimo ofizialen erabilera egokiaren eta hedapenaren gainean 42. artikuluan, 3. eta 4. puntuetan, ezarritakoa, aurrerantzean administrazio publiko guztiek kontuan izan beharko dutena:

3.— Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko toki-entitateek eta tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek, bai eta dekretu honen aplikazio eremu subjektiboko pertsona fisiko eta juridikoek ere, toponimo ofizialak behar bezala erabiltzen direla zainduko dute.

4.— Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko toki-entitateek eta tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek, bai eta dekretu honen

aplikazio eremu subjektiboko pertsona fisiko eta juridikoek ere, beren lurralde-eremuko toponimia aztertzeke, ikertzeke eta hedatzeko laguntza- eta sustapen-egitasmoak landuko dituzte.

#### ERREFERENTZIAK

- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa.  
156/1996 Dekretua, ekainaren 18koa, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko.  
176/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.  
*Real Decreto 1545/2007, de 23 de noviembre, por el que se regula el Sistema Cartográfico Nacional.*  
2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.  
179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (V. kapitulua).  
<https://www.euskadi.eus/izendegigeografikoa.eus>  
<https://www.euskadi.eus/eaeko-toponimia-onomastika/web01-a2corpus/eu/>



## EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA: ASMO-HELBURUAK ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

PATXI GALÉ  
Onomastika batzordea  
patxigale@euskaltzaindia.eus

1999. urtean aipatu zen lehenengoz Euskaltzaindian informazio toponimikoa biltzeko datutegi baten beharra. Arrazoibidean, laburbilduz, Onomastika batzordean hartzen diren erabakiak behar bezala hartzeko, guztiz beharrezkotzat jotzen da finkatu nahi diren izen, deitura nahiz toponimoei buruzko informazioa ezagutzea: haien historia dokumentala, haien erabilera eta, era berean, hizkuntzalariak haietaz esan dituztenak ere. Helburu horrekin planteatu nuen orduko Onomastika batzordean —modu inozo samarrean, egia esan—, euskal toponimoen informazioa gordetzeko *Access* datu-base bat osatzeko aukera. Eran-tzuna berehalakoa izan zen: “ideia ona da; egin egizu”.

Hasieran Euskal Herriko leku-izenei buruzko informazioa metatu nahi bazen ere, batzordearen beraren ikergaien neurrira egokitzeko, onomastika osoaren alor zabalari hedatzea erabaki zen berehala. Onomastika, oro har, izen bereziak aztertzen dituen jakintza da, eta, ohikoan, bi alor nagusitan banatu ohi da: toponimia eta antroponimia. Antroponimian, halaber, bi azpisail aipatu ohi dira: pertsona-izenak eta deiturak. Euskal Herrian, toponimiaren eta antroponimiarren azterketak ez dira erraz bereizten, euskal deitura askok toponimian dutelako oinarri nagusia, eta pertsona-izen askok ere bai. Halaber, pertsona-izenak izaten dira deitura askoren oinarria, patronimikoen kasuan argi ikusten den legez.



## EGITURA NAGUSIA

Modu horretan, pixkanaka, informazio onomastikoa biltzeko datutegi bat moldatu genuen, esan bezala, *Access* aplikazio batekin. Nola edo hala irudikatzeke, izaera desberdineko informazioak modu ordenatuan gorde eta era azkarrean kontsultatzeko armairu edo apalategi baten antzekoa da aplikazio hori. Funtsean datu-iturrietatik datuetara, eta datu horietatik izendatutako gauzetara heltzeko bidea errazten duen egitura litzateke.



Eta datu onomastikoak nondik atera ditzakegu? Lehenik, idatzizko iturriak miatu behar ditugu: artxibategietako dokumentuak, kartografiak, argitalpen historiko eta geografikoak, katalogoak, hiztegiak, hizkuntzalarien ikerlanak, Euskaltzaindiaren erabakiak, izendegi ofizialak... Miatzen diren iturri horietatik pertsona- eta leku-izenak ateratzen edo erauzten dira, betiere dagozkien datazioarekin, erreferentzia zehatzarekin eta, lagungarri izan daitekeenean, item onomastiko horiek aipatuak agertzen diren testuinguruarekin ere.

Lekukotasun horietan oinarrituta joango gara pertsona-izenen, deituren eta lekuen errolda osatzen. Eta lekukotasun horiei esker ikasiko dugu izen horien euskarazko idazkera eta erabilera egokia zein den. Era horretan joan gara osatzen, datutegi horren barruan, euskal pertsona-izendegia, euskal deituren izendegia eta euskal toponimoen bilduma zabal bat. Toponimiaren alorrean, ahozko erabilera jasotzea ere garrantzitsua izaten da, izenen euskal aldaerak eta haien erabilera ahalik eta zehatzen ezagutzeko —nola deklinatzen diren, adibidez—. Azkenik, toponimo horiek izendatutako lekuak zer diren (probintziak, hiriak, herriak, aintzirak, ibaiak, mendiak...) eta non dauden zehaztu behar da, bi ezauzgarri horiek definitzen baitute, oro har, leku bakoitza.

**ECO EGITASMOA ETA ONOMASTIKA BATZORDEA**

2000. urtetik aurrera, ordu solteak sartzen hasi ginen Euskaltzaindian, Jose Luis Lizundiaren bultzadaz, datutegia osatzeko lanetan. 2004an eman zitzaion datutegiari orain duen izena eta 2005ean, Argomaizen egindako Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan onartu zen egitasmo ofizial gisa, Andres Iñigo euskaltzainaren zuzendaritzapean. Batzordeburua izan zen bitartean hala izan zen, eta 2012an hartu zion lekukoa Patxi Salaberri euskaltzainak, hala egitasmo zuzendaritzan, nola batzordeburu gisa ere. Azkenik, 2017an, beste lekuko-aldaketa bat egon zen, eta une honetan Roberto González de Viñaspre da bai batzordeburua eta bai egitasmo zuzendaria ere. Ibilbide horretan ikus daitekeenez, egitasmoa beti egon da Onomastika batzordearekin lotuta eta haren zuzendaritza garai bakoitzeko batzordeburuaren esku egon da. Urte bakoitzean egitasmoan gauzatu beharreko lanak ere batzordeak onartzen ditu.

**DATU-ITURRI NAGUSIAK**

Hasierako *Access* datutegi hura eraiki eta segituan, datuez hornitzen hasi ginen. Lehenbiziko informazio-multzo handia Nafarroako toponimia bilduma izan zen. Lan handi hau 1992 eta 1999 bitartean gauzatu zen Nafarroako Gobernuaren ekinbidez eta José María Jimeno Jurío ikertzailea izan zen zuzendaria. Emaitzak 59 liburuki handitan joan ziren apurka-apurka argitaratzen, eta, finean, Nafarroako toponimoen bilduma da, herriz herri aztertuta, oinarri dokumental eta ahozko inkesten oinarri sendoarekin, ikerketa-talde zabal baten laguntzaz egin zena. 1998. urtean, azken liburukiak artean argitaratzeko zeudela, liburu horien bertsio digitala eskuratu zion Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari. Eta datu haiek guztiak sartu genituen datu-base eraiki berri hartan: 94.000 leku-fitxa, 220.000 lekukotasun dokumental eta ahozko 92.000 testigantza inguru.

Tamaina handiko hurrengo multzoa Ipar Euskal Herriko toponimoen bilduma izan zen. Frantziako IGNk 2004an bere mapetako toponimiaren idazkera euskaratzeko borondatea erakutsi zuen. Horretarako, 1:25.000 eskalako kartografia ofizialean ageri diren leku-izenen zerrenda bat Euskaltzaindiari eman eta toponimo horien euskarazko idazkera zuzena ezar zezan eskatu zion. Ipar Euskal Herriko ikertzaile batzuk aritu ziren lanean, dokumentazioa eta —batez ere— ahozko informazioa biltzen. Lan haren emaitza 2006. urtean biribildu zen, eta IGNri entregatu ez ezik, *ECO* datutegira ere gehitu zen. 12.000 leku-fitxa inguru izan ziren, haiek ilustratzen dituzten 65.000 datu dokumental eta 40.000 ahozko testigantza inguru.




Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia bilduma ere jaso zuen Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzak eskuratuta. Lan hori Deustuko Ikerketa Institutuak egin zuen 1986 eta 2008 bitartean, bi etapatan eta lurraldeka. Helburu zehatza 1:5.000 eskalako kartografian errotulatu beharreko toponimia finkatzea izan zen. Jaurlaritzak eskuratutako datutegia lehen etapakoa izan zen, ez azken bertsioa. Hala eta guztiz ere, 78.000 leku-erregistro inguru ekarri zituen *ECO*ra, baita haien oinarri diren 830.000 lekukotasun dokumental eta 180.000 ahozko datu inguru. Horrekin, Euskal Herriko hiru eremu administratibo nagusien toponimia bilduma “osatua” zegoen, beraz, *ECO*n.



Ondoren, Euskaltzaindiaren *Euskal izendegia* eta *Euskal deituren izendegia* ere gehitu ziren datutegira, gaztelaniazko nahiz frantsesezko ordainekin eta hizkuntza horietan erabili ohi diren aldaera grafiko egokituekin. Era horretan, Onomastikaren hiru alorrak nola edo hala barnebiltzen ditu datutegiak. Hortik aurrera, urtero-urtero hitzartzen diren lanekin, etengabe aberastuz eta osatuz joan da *Euskal Corpus Onomastikoa*, arreta berezia emanez antzinako dokumentazioari, Euskaltzaindiak berak hartutako erabakiei eta emandako gomendioei, edota erakundeak sustatutako argitalpenei: *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*, *Onomasticon Vasconiae* eta *Izenak* bildumak, arauak... Aipamen berezia merezi dute, Exonomastika alorreko arauetan Euskaltzaindiak finkatu dituen erregistro onomastikoak, hala kanpoko toponimoak nola kanpoko pertsonaia historikoen izenei dagokienez.





**ECO** ETA **EODA**

Une honetan, *Euskal Corpus Onomastikoan*, gutxi gorabehera, honako erregistro kopuru hauek daude: 12.000 deitura, 5.000 pertsona-izen eta 255.000 leku-fitxa. Erregistro edo fitxa “nagusi” horien lagungarri eta oinarri, idatzizko hainbat iturritatik jasotako 1.777.000 lekukotasun dokumental daude, baita ahoz bildutako 315.000 lekukotza ere, toponimiaren kasuan.

*ECO* Onomastika batzordearen lan-tresna izateko sortu zen, eta helburu horrekin joan da hazten eta emendatzen. Datutegian dauden fitxa horiek, ordea, ez daukate berme maila bera, nondik jaso diren eta, batez ere, nolako oinarri dokumentala (edota ahozkoa) duten kontuan edukita.

Pertsona-izen, deitura eta leku-izen askok arau maila dute eta haien idazkera, nolabait, finkatua du Euskaltzaindiak. Proposatutako idazkera eta erabilera horiek Euskaltzaindiaren Osoko bilkuraren oniritzia eta bermea dute. Beste kasu batzuetan, arau mailarik ez, baina Onomastika batzordeak aztertu ondoren, onztat eman ditu izen, deitura nahiz toponimoen idazkerak, eta, arau batean agertu ez arren, irizpen, katalogo edo argitalpen zehatzen bidez plazaratu dira. Horiek ere Akademiaren nolabaiteko oniritzia dute eta arauetako datu onomastikoekin batera plazaratu ohi ditu Euskaltzaindiak webgunearen bitartez. *ECO*ren atal publiko honi *Euskal Onomastikaren Datutegia* esaten diogu, *EODA*.

*ECO*n, ordea, badaude oinarri dokumental sendoa eta arautze proposamena formulatua daukaten beste izen berezi asko. Euskaltzaindiak ez, baina bestelako ikertzaileek aztertu eta proposatuak dira, argitalpen, katalogo nahiz webgune espezializatuen bidez. Maiz, ikertzaile edo lantalde horiek Euskaltzaindiaren arautze-irizpide berberak erabili dituzte haien proposamenak biribiltzeko, eta emaitzak, oro har, uztargarriak dira hizkuntzaren normalizazioaren ildo nagusiarekin. Era honetako datuek ez dute Euskaltzaindiaren edo batzordearen berriazko oniritzia, eta, orain arte, ez dira webgunean plazaratu, baina aurtengo ekainean, ate hori zabaltzen hasiko da, modu horretan informazio aberats hori interesatuen eskura jarriko da, eta emaitzak hobetzeko nahiz zehazteko aukera zabalagoa egongo da.

Azkenik, *ECO*n badaude oinarri dokumental gutxi edo informazio eskasa jasota daukaten erregistro asko. Halakoentzat ez dago oraingoz arauzko idazkera proposatzerik, ez behintzat gutxieneko bermeaz. Zuhurrena dela uste dugulako, era honetakoak ikerketa eta datu gehiagoren esperoan gelditzen dira *ECO*n.

Une honetan *ECO*n dagoen eta *EODAn* erakusten den datu kopuruaren artean alde handia dago, batez ere toponimiaren alorrean. Euskaltzaindiak aspalditik erakutsi du esku artean duen informazioa ikertzaileen eta interesatuen esku jartzeko borondatea. *Euskal Corpus Onomastikoa* euskal eragile kulturalak burutzen dituzten ikerketetatik eta lanetatik elikatzen da nolabait, eta bidezkoa

dirudi, alderantziz, bildutako informazio hori, ahal den neurrian, nola edo hala itzultzea. Horrela, datu horiek beste ikerketa batzuetan erabilgarri izango dira, eta euskal onomastikaren normalizazioan aurrerabidea erraztuko dute. Honako hauek dira *ECO*ko datu kopuruak, orain arte *EODAn* erakutsi direnak eta hemendik aurrera eskainiko direnak:

	<i>ECO</i>	<i>EODA</i>	
		Orain arte	Aurrerantzean
Izenak	5.900	3.400 % 73,85	4.700 % 79,61
Deiturak	12.300	9.600 % 78,52	9.600 % 78,52
Lekuak	256.700	7.900 % 3,11	112.700 % 43,90
Dokumentalak	1.786.900		
Ahozkoak	315.400		

Euskaltzaindiaren Izendegia pixka bat hazi da, eta liburu honetan zehazkiago azaltzen digu Paskual Rekalde batzordekideak zertan datzan emendio lan hori, baina nabarmenen haziko dena erregistro toponimikoen kopurua da. Hemendik aurrera, toponimia txikiko hainbat erregistro plazaratuko dira *EODA* berrituan, gehienak Nafarroakoak eta Ipar Euskal Herrikoak. Nolabait esanda, lehen aipatu ditugun lan horietatik egindako arautze proposamenak, oro har, irizpide egokiak jarraituz erabaki zirela uste dugu, eta bere horretan plazaratzen dira, betiere, ikerketa-lanetako proposamenak direla jakinaraziz, eta ez Euskaltzaindiarenak.

#### ETORKIZUNeko ERRONKAK

Kopuruak kopuru, eginda dagoena baino askoz ere gehiago gelditzen zaigu egiteko. Orain arte, *ECO*k izan dituen etapen arabera, helburuak apur bat aldatuz, zehaztuz eta egokituz joan dira. Euskal Herriko erakunde administratibo desberdinen beharrek, kultur-eragileen edo argitaletxeen eskari zehatzek, iker-tzaile nahiz lantaldeen ekinbide solteek... ohikoan halakoek baldintzatu dute maiz gure lana eta Euskaltzaindiak emandako urratsen "lehentasuna". Ez da bide hori utzi behar, azken finean, Euskaltzaindia gizartearen zerbitzura dagoen erakunde akademikoa delako. Ordea, premiak, lehentasunak eta helburu estrategikoak aldiro-aldiro birformulatzea komeni da, norabide nagusia ez ahazteko.

Oro har, uste dugu datutegiaren kudeaketan eta lan egiteko sisteman bide industrialago bat antolatu behar dela. *Euskal Corpus Onomastikoak* jorratzen duen alorrean egiazko beharra dago gizartean. Esku arteko datu kopuruak ikusita, *ECO* ibilbide luzeko egitasmo gisa ulertu behar dela uste dugu. Eta

etorkizunik izango badu, “produkziorako” egokiagoa den lan sistema bat diseinatu eta abiatu behar da.

Honako urrats hauek aipatuko nituzke, esku artean dugun egitasmo honen beharrezko birdefinizioan:

- Helburu urruna zehaztu behar genuke, *Euskal Hiztegi Onomastikoaren* gisako zerbait, agian.
- Eragile nahiz tekniko espezializatuez osatutako lantalde egitura abiarazi behar dugu, zeregin bakoitzerako berariazko tresna eraikiz eta eragile egokiaren esku jarritz. Uste dut jarraitu beharreko metodologian, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko lantaldea eta haiek jarraitutako bidea izan daitezkeela guretzat balio handiko eredia.
- Paper euskarritik *Internet* bidez hedatutako datutegi bizi baten kontzeptura jauzi egin behar da, etengabeko eguneraketan haziko dena.
- *ECO*n dagoen informazioari duen balio potentzial guztia atera behar zaio, datu asko oraindik ezkutuan dagoelako, noiz aztertuko zain.
- *ECO*ren egiturak eskaintzen dituen tresnak baliatuz, datu onomastikoen sailkatze- eta definizio-lanei ekin behar zaie (lematizazioa, iruzkinak...).
- Aldi berean, ordea, emendio-lanekin aurrera jarraitu beharra dago, corpusaren atal guztiak haziz eta aberastuz joan daitezen (datu dokumentalak, erregistro nagusiak, hizkuntza-iruzkinak...).
- Onomastika batzordeak, euskara jasoan item onomastikoek izan behar duten erabilera iradokitzen jarraitu behar du, alegia, arautze-lana ez du eten behar. Lan horiek jasota gera daitezen lan-tresna egokia da *ECO*, eta, halaber, gizarteratzeko tresna baliagarria da *EODA*.

Zerrenda irekia da hau, behin eta berriz birdefinitu eta berrordenatu beharko dena. Baina oro har, norabide nagusiak adostuta, Euskaltzaindiak sustatu, bultzatu eta lagunduta, aurrera joko dugu, geure lanari ekin eta jarrai.





# EUSKAL ONOMASTIKAREN EGUNGO EGITEKO NAGUSIAK, ONOMASTIKA BATZORDEAREN IKUSPEGITIK

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE  
Euskaltzain osoa  
gasteizordez@euskaltzaindia.eus

## EUSKALTZAINDIKO ONOMASTIKA BATZORDEA

Hizkuntza-alderditik Euskaltzaindiari dagozkion egitekoetan aitzina joateko, 1983. urteko barne jardunaldietan erabaki zuen Euskararen Akademiak Onomastika batzordea sortzea. Lehenagoko Izendegi batzordearen zuzeneko ondorengo izan zen berau.

Bost eginkizun nagusi ezarri zitzaizkion orduan batzorde eratu berriari: irizpenak ematea, izenak ikertzea, herri-izendegia prestatzea, toponimia-lanak egitea eta pertsona-izendegia gauzatzea. Horiek guztiak ziren eta dira onomastikaren berezko jardute-esparru. Aipatutako eginkizunek bat egiten dute onomastikaren bi zutabe nagusiekin: antroponimia (pertsona-izenak eta deiturak) eta toponimia (leku-izenak).

Hogeita hamasei urteko ibilbidea du Onomastika batzordeak. Hastapeneko garai hartatik gaurdaino, belaunaldi desberdinetako ikertzaile eta aditu saiatu askok parte hartu dute batzordearen lanetan eta proiektuetan. Lan kolektiboaren fruitu dira, beraz, gauzatutako asmoak, hamarkadetako ekimenen emaitza. Aurrekoen oinordeko duin izateko ahaleginetan dihardugu egungo batzordekideok, onomastikaren aldetik premiazkoen diren beharrei konplimendua emateko eta, arlo honi dagokionez, euskararen erabateko normalizazioa erdiesteko.

Azaletik bada ere, hona zenbait jakingarri Onomastika batzordearen oraingo osaraz eta egitekoen. Hamar kide gara egun, idazkaria eta burua barne. Batzordekideez gainera, bi aholkulari ditu une honetan batzordeak. Aditu horiek ez dute parte hartzen ohiko bilkuretan eta egitekoetan; bai, aldiz, hala eskatuz gero, berariazko lanetan edo eremu mugatuko aztergaietan. Onomastika batzordeaz landa, Onomastika zerbitzua du Euskaltzaindiak, 2004. urtean sortua, batik bat —baina, ez soilik— iraunkorrak esaten diegun onomastika-egitekoetan jarduteko. Zerbitzu horren arduradunak ere parte hartzen du Onomastika batzordean.

Zein dira egiteko iraunkorrak? Euskal onomastikaz erakunde publikoetatik eta herritarrengandik datozen kontsultei eta galderei argibidea eta erantzuna ematea, txosten, irizpen edo ziurtagirien bitartez. Batez ere, leku-izenen hizkuntza-arautzeari lotuak izaten dira administrazio orokorren eskaerak, baita foru-diputazioenak eta udalenak ere. Ordea, herritarren kontsulta gehienak pertsona-izenen eta deituren ingurukoak izaten dira. Esaterako, 2018. urteko datuei erreparatuta, norbanakoen kontsultak pertsona-izenez izan dira nagusiki (% 65) eta deiturez (% 35). Administrazio mailan, Erregistro Zibiletatik jo ohi dute Onomastika zerbitzura, oroz gain pertsona-izenen erregistroko inskripzioetarako diratekeen duda-muda linguistikoen.

Administrazioei dagokienez, erakunde aholku-emaile ofiziala da Euskaltzaindia oro har euskara-gaietarako eta, berariaz, toponimia-kontuetarako. Akademiaren gidaritzara lege mailara eraman zuen Eusko Legebiltzarrak 1979. urtean. Hala jasota dago aitortza hori, lehenik Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan, eta, ondoren, 1982. urtean, Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legean:

[...] toponimo guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, lurralde historikoetako foru-organoei edota toki-erakundeek finkatuko dituzte, zeinek bere eskumenen eremuan eta [...] hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin [...] Izen ofizialei buruzko gatazkarik piztuko balitz toki-erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du Euskaltzaindiari iritzia eskatu ondoren (10. art.).

Orobat, Nafarroako Foru Erkidegoan era bereko aitortza jasotzen da 1986ko Euskarari buruzko Foru Legean:

Hizkuntza arauak ezartzeko, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala, eta botere publikoek berari eskatuko dizkiote [...] beharrezko zaizkien txosten eta irizpenak (3. art.).

Ipar Euskal Herrian ere esan daiteke antzeko gidaritza aitortua duela Akademiak. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEPren) eta Euskaltzaindiaren arteko 2017-2022ko hitzarmen-markoan jasotzen diren lan-lerroetan toponimoen grafia egokiaz aholkua ematea dago. Era berean, Akademia aholku-emaile ofiziala izendatua du Euskal Hirigune Elkargoak 2018ko irailean, Euskaltzaindiarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz. Testuinguru horretan, nabarmentzekoak dira, besteren artean, azkenaldian EEPekin lantzen ari den Baionako karrika-izendegia edo *Le Tram'bus* zerbitzuaren barneko geraleku-izendegia. Lehenago ere, 2008. urtean, Euskaltzaindiak eta Frantziako *Institut Géographique National*-ak (IGNak) izenpetu zuten hitzarmenari esker, IGNko 1:25:000 eskalako mapen euskal leku-izenak arautu zituen Akademiak (<https://www.geoportail.gouv.fr/donnees/carte-ign>).

Horrenbestez, Euskaltzaindiari dagokio Euskal Herri osoan, leku-izenen forma arautu zuzenak ezartzeko behar diren irizpide linguistikoak finkatzea eta erakunde publikoei aholkua ematea.

Lan iraukorrez gainera, berariazko lanak ere egiten ditu Onomastika batzordeak, urtez urte. Halakoen zenbait erakusgarri, iazkoak. Santutegiko izen ohikoenen araua, 1996. urtean onartua, emendatzeko eta eguneratzeko lana prestatu da. Laurogeita bi izen erantsi zaizkio orduko zerrendari, eta ingelesezko ordainak ere gehitu dira. Oso aurreratua dago Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen izenei buruzko araugaia. Bereziki 186. arauan eman ditu Akademiak Europako errege-erreginen zerrenda xeheak, baina Euskal Herriko historian hain toki nabarmena duten Iruñeko eta Nafarroako monarken izenak ez ziren arau horretan jaso, bereiz landu nahi baitzituen Euskaltzaindiak. Hutsune hori betetzera dator arau hau. Orobat, 2018. urteko berariazko lanen emaitza dira EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia) berritua, pertsona-izendegi eguneratua eta odonimiako eskuliburua, jarraian aipatuko ditugunak.

## ONOMASTIKA IKERTZAILEEKIKO KOMUNIKAZIORAKO ZUBIGINTZA

Ez gara asko Euskal Herrian onomastikaren alorra lantzen dugunok, nork bere jakintza-arlo espezifikitik, irizpide sendoz eta zehaztasun metodologikoarekin, ikerketa-eremu geografikoa hedadura handiagokoa edo txikiagokoa delarik. Onomastika batzordeko kideok sinetsita gaude ezinbestekoa dela euskal onomastika ikertzen eta lantzen duten ikertzaileekin elkarren arteko harremana sendotzea. Mesedegarria izango zaigu guztioi —eta, batez ere, euskal onomastikarako onuragarria— elkarren berri izatea, gu guztion lan eta asmo nagusiak zein diren jakitea, hori guztia elkarrekiko konfiantzazko giro zintzoan. Onomastika nabarmen diziplina konplexua da, eta erantzukizun handikoa: mendez

mende aurrekoek lagatako ondarea jasotzea, egonkortzea eta hedatzea dagokigu, eta egungo zein bihar-etziko belaunaldien eskura egoki uztea. Egiteko komun horretan garrantzizkoa da nork bere inguru geografikotik, ikerketa-arlotik edo jakintza-eremutik ekarpena egin ahal izatea Onomastika batzordeari.

Xede horri forma emateko, han-hemengo ikertzaileekin jarri da harremanetan dagoeneko Onomastika batzordea, eraikitzen ari den harreman-bide horretan partaide izan daitezten. Espero izatekoa da, truke oparo horren emaitza gisa, ikertzaileek beren inguru geografikotik, ikerketa-arloaz eta jakintza-eremuaz Onomastika batzordeak dituen aztergaiez kontsulta puntualei ekarpena egitea eta, hala dagokionean, Onomastika batzordeak eskatuta, aztertzen ari den gai bati buruzko ikerketa-txostena burutzea. Zer eskaintzen die Onomastika batzordeak ikertzaileei? Laguntza eta orientabidea, ikerketa-jardunean sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta onomastika-lanetan sakontzeko. Egindako txostenak lehenago argitaratu gabeko informazioa biltzen badu, eta, maila jasokoa bada, argitara emateko aukera izan dezake, hartarako Onomastika batzordearen eta Euskaltzaindiko Argitalpen batzordearen onespak dituelarik.

Ikertzaile laguntzaile horiek ez daude txertatuta Onomastika batzordearen egituran. Ez dira batzordeko kideak. Ez dira batzordearen bilkuretara joaten, eta horretan bereizten dira batzordeko aholkulariengandik, azken hauek, gaiak zein diren, batzordearen zenbait bileratan parte har dezaketelako. Baina, nire iritzian, ikertzaile horiek osatzen dute harrobi naturala Onomastika batzordearen bihar-etziko aholkulariak eta batzordekideak izateko.

Lankidetzta-egitasmo hau zabaltzeko eta indartzeko asmotan, ikertzaileak eta Onomastika batzordea gutxienez urtean behin biltzea komeni delakoan gaudu. Aurten izango da lehenbiziko elkarretaratzea, urriaren 19an, Otxandioko udaletxean. Bertan, hausnarketa partekatua egingo dugu onomastikak egun gurean dituen egitekoez, eta gertutik erakutsi nahi dizkiegu Onomastika batzordearen zereginak eta antolamendua. Hurrengo batzarretarako uste dugu gai monografikoak presta ditzakeela batzordeak, eta aukera eman ikertzaileei beraien egindako ikerketa-gairen bat aurkez dezaten. Iruditzen zait handia dela dinamika parte-hartzaile batek ekar dezakeen onura.

#### **ECOTIK EODARA, INFORMAZIO ONOMASTIKOA GIZARTERATZEKO BIDEAN**

Duela hamalau urte jarri zuen abian Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) izeneko egitasmoa. Euskal izen bereziek (Euskal Herrikoak nahiz kanpoko toponimoak, pertsona-izenak eta deiturak) euskaraz izan behar duten erabilera egokia finkatzeko tresna izatea du xede. Horretarako, datutegi bakar batean jasotzen dira, al bait modurik exhaustiboenean, izen horien guztien

lekukotza dokumental historikoak eta gaurko erabilera. Datuen horien argitara, Onomastika batzordeak bere arloan hartu behar dituen erabakiek eta irizpenek oinarri sendoagoa izango dute, eta toponimiaren erabiltzaileek ere argiago izango dute jarraitu beharreko bidea. Corpus Onomastiko horren iturri oparoenak lan dokumentalak, literarioak, historikoak, etnografikoak eta kartografikoak izaten dira. Datutegi handi horrek egun 256.700 leku-izen biltzen ditu eta 1.786.900 era dokumental.

Iturri onomastikoetatik edanez ECOk batera biltzen duen informazio oparora etengabe osatzen jarraitzeaz batera, funtsezkoa da aurrerantzean bilduma horretako datu-kopuru ohargarria ikertzaileen eta osterantzeko interesdunen eskura eta zerbitzura jartzea. Berebiziko lanabes erabilgarria da onomastikaren arloan. Ondare horri ahalik eta etekin joriena aterako bazaio, oso garrantzitsua da informazio hori egokiro partekatze modua ezartzea. Horixe da gure uste osoa. Egitasmoaren datuei ikusgarritasun nabarmen haziagoa emateko borondatea iaz ere agertu nuen Arantzazuko batzarrean, mendeurreneko hitzaldian:

informazio oparo hori osatzen jarraituko da, Onomastika batzordearen lanetarako oinarri izateko, baina, era mailakatuan ikusgarritasuna hartu behar du Euskaltzaindiaren webgunean, EODAn bidez, hainbat datu ikertzaileekin eta interesa dutenekin partekatze.

Egia da asmoa ez dela osorik berria. Izan ere, lehendik izan du ECO egitasmoak jendaurreko erakusleiho zabal bat Euskaltzaindiaren webgunean (<https://www.euskaltzaindia.eus>), EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia) atal publikoan. Baina, zeharo berritzailea dugu egungo ekimenaren tamaina. Ideia kuantitatibo bat izan dezagun, gaur egun arte leku-izenek buruzko datuen % 3 besterik ez zen EODAn bistaritzen, eta hemendik aurrera % 44 izatera iragan da kopurua.

Alde kualitatibotik, bidezkoa da ohartaraztea EODAn aurkezten den informazio oro ez dela Akademiaren lanen emaitza eta, ondorioz, aldaera guztiek ez dutela Euskaltzaindiaren bermea. Izan ere, datutegian ageri diren zenbait pertsona-izen, deitura eta leku-izenen idazkera akademikoa Osoko bilkuran erabakitako arau baten bidez finkatu da; beste askok, Onomastika batzordearen lanen ondorio izanik, bere bermea dute; aldiz, hainbat izen Onomastika batzordearen aburuz irizpide egokiak erabiliz egindako ikerketa-lanetatik hartuak dira, baina ez dute Euskaltzaindiaren berariazko onespenerik.

Erabiltzaileak berme-maila horiek aintzat harturik baliatu behar du datutegiak eskaintzen duen informazioa, eta hala jakinarazten da webgunean, EODako sarreran bertan:

Erregistro guztietan ematen da aditzera zein den proposatutako idazkeraren berme-maila eta, askotan, erabiltzaileak neurtu beharko du aldaera bakoitza noraino izan daitekeen behin betikoa, behin-behinekoa edota zalantzakoa.

#### PERTSONA-IZENDEGIA EGUNERATZEA ETA BERRITZEA

Euskarak berezko tradizioa du pertsona-izenetan, gainerako hizkuntzek duten bezala, Erdi Arotik aski ongi dokumentatua. Eta, XVI. mendean, Trentoko Kontzilioaren arauak bete-betean ekarri zuten gurera ere ponte-izenak kristau-izenak izan beharra. Euskal izendegiaren iraultza 1910. urtean iritsi zen, Koldo Eleizalde Sabino Aranak landutako *Deun-ixendegi euzkotarra* argitara eman zuenean. Hautsak harrotu zituen liburu horrek. Jakina denez, *Iker*, *Joseba*, *Edurne* eta *Ane* moldeko izen asko ordukoak dira.

Euskaltzaindia sortu ondoren, xx. mendea aurrera zihoala, urratsak egin ziren pertsona-izenen aukerak handi zitezen. Aingeru Irigarai euskaltzain nafarrak prestatu zuen izen-bilduma eta Akademiak plazaratu zuen 1966. urtean, *Izenlerroa* izenburuarekin. Hor ageri dira estreinakoz, besteak beste, *Ainhoa*, *Aitziber* eta *Idoia* izenak. Jose Maria Satrustegi euskaltzainak paratu zuen 1972. urtean *Euskal Izendegia* lana. Beste edizio batzuk izan zituen 1977an eta 1983an. Izen bat edo beste hartu zuen euskal mitologiatik, hala nola *Hegoi* eta *Amalur*. Andre Mariaren tokian tokiko izenak ere, jatorriz leku-izenak, baliatu zituen Jose Maria Satrustegik, lehenago Aingeru Irigaraik egin bezala, emakumezko izenak sortzeko (ad. *Nagore*). Toponimia ere izan zuen berrikuntza-iturri euskaltzain nafarrak (ad. *Irati*) eta lexiko arrunta ere bai (ad. *Ibai*). Izen horiek guztiak gizezkoetan eta emakumezkoetan bereizirik ematen ziren. Ez zegoen besterako aukerarik. Espainian, Erregistro Zibilaren 1957ko Legeak argi eta garbi galarazten zuen erregistroan jasotzea sexuari buruz okerra eragin zezakeen izenik. Bestalde, gogoan izan dezagun Espainian 17/1977 Legea onartu arte haurrari ezin jar zekiokela erdal baliokidea zuen euskal izenik. Harrezkero ireki zen ate hura.

Testuinguru haren ondotik etorri zen Euskaltzaindiaren *Euskal Izendegia*, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailarekin batera argitara emana. Ehunka pertsona-izen gehiago erantsi ziren lan bilduma horretan, denak gizezkoen eta emakumezkoen sailetan banaturik, salbuespenik gabe.

Azken hamazortzi urtean Euskaltzaindiak jarraitu du pertsona-izenen zerranda zabaltzen eta egokitzen. Nagusiki herritarren eskarien ondorioz egiaztatutako izenetatik iritsi da gehikuntza, baita Akademiak onartutako arau berrietatik ere. Berrikuntza horiek aldiro jaso eta eguneratu izan dira Euskaltzaindiaren webgunean.

Onomastika batzordeak atondu duen pertsona-izendegi eguneratuak bi be-  
rritasun handi dakartza.

Alde batetik, pertsona-izen neutroen saila gehitzen du lehen aldiz, hau da,  
genero finkorik gabeko izenak. Azken urteetan halako izenen eskakizuna hazten  
joan da euskal gizartean. Zenbait gurasok beren haurrentzat jatorriz leku-izenak  
direnak (ad. *Amaiur, Ioar*) nahi izaten dituzte, edo jatorria lexiko arruntean du-  
tenak (ad. *Ahets, Lur*). Euskarak ez du genero gramatikalik eta, hortaz, izen  
horiek, pertsona-izentzat hartuak, ez dira ez maskulinoak, ez femeninoak. Ezin  
dakieke genero bakar bat atxiki, eta baterako zein besterako balio dezakete. Izen  
neutroen erabilerak babesa du Frantziako legerian 1996az geroztik, eta Espaini-  
an Erregistro Zibilaren 20/2011 Legeak irekita utzi du hartarako atea, nahiz  
eta oraindik ere legea ez den indarrean sartu atal horri dagokionez. Onomastika  
batzordeak asmo irmoa du sail horretako pertsona-izendegia zabaltzen jarrai-  
tzeko, betiere gizartearen eskakizunarekin bat joanez.

Beste aldetik, izendegi berrituan pertsona-izen txikigarrien edo hipoko-  
ristikoen kopurua handitu da. Espainiako Erregistro Zibilaren 1957ko Legeak  
pertsona-izenak jartzeko debekuetan jasotzen zuen izen “txikigarriak edo fami-  
liako aldaerak eta funtsik lortu ez duten lagunartekoak ere” erabiltzea. Debeku  
hori bertan behera utzi zuen 3/2007 Legeak, eta bidea ireki da euskararen siste-  
ma baliatuz sortzen diren izen txikigarri edo hipokoristikoak erabiltzeko. Azken  
urteetan era horretako askotxo joan dira sartzen Euskaltzaindiaren izendegian,  
eta asmoa du Onomastika batzordeak halakoen bilduma hedatzen eta egunera-  
tzen jarraitzeko hemendik aurrera.

Pertsona-izendegi berritua euskarri digitalean soilik —Euskaltzaindiaren  
webgunean— plazaratzeko asmoa du Akademiak, 2001eko *Euskal Izendegia* ez  
bezala. Hautabide horren funtsezko arrazoia da izendegiak ezinbestean duen  
izaera irekia eta dinamikoa. Izan ere, pertsona-izenen sistemak berez ez dira iza-  
ten hertsia eta egonkorak, baizik eta aldakorak, garaian garaiko gustu este-  
tikoak eta sentsibilitateak zein diren.

## DEITUREN IDAZKERA ARAUTUA

Euskaltzaindiak 1998. urtean plazaratu zuen *Euskal Deitura izendegia* ize-  
neko liburua. Milaka deituren idazkera arautua eman zuen lan hartan Onomas-  
tika batzordeak. Ordutik hona gaurkotzen jarraitu dugu orduan hasitako proie-  
ktua, emeki baina etengabe. Hala eta guztiz ere, jakitun gara bultzada handiz eta  
indar berriz heldu behar zaiola hemendik aurrera zeregin horri. Osatu gabeko  
lana da. Eta baliatu behar da gaur egun, zorionez, duela zenbait urte baino askoz  
datu gehiago bilduak ditugula Euskal Corpus Onomastikoan (ECON), batez ere  
dokumentazio historikotik eskuratu ahal izan diren datuei esker.



Zalantzarik gabe bereziki sentibera da deituren gaia, norbanakoentzat hain gertukoa izanik, baita gizarte maila orokorrean ere zuzeneko kultura-erreferentziak dituelako. Esaterako, Euskal Herriko pertsona historikoen deiturek euskal idazkera arautua izan behar dute (*Bernat Etxepare, Espotz eta Mina...*). Oro har, atzoko eta egungo euskal deiturei euskal idazkera zuzena eman behar zaie, baina gurean badira oraindik euskal deituren erabileran sakonki errotutako hizkuntza-ohiturak. Izan ere, mendez mendez, belaunez belaun, auzo-erdaren usadio grafikoaren menpe idatzi behar izan dira euskal deiturak. Idazmolde horiek besterik ez dute erabilera ofiziala izan, duela oso gutxi arte. Egia da auzo-erdara nagusietan ere deituren idazkera unean-unean indarrean zegoen sistema ortografikoaren arabera moldatuz joan dela, baina hizkuntza horietan ere, pixkanaka eta ia oharkabean deituren idazkeran gertatu diren aldaketek askoz azkarrago eta nabarmenago gertatu behar dute orain euskararen kasuan, tradizioz gaztelaniaren eta frantsesaren grafiaz idatzi izan diren deiturei euskararen ortografia estandarra aplikatzean. Hori da egoeraren konplexua. Ertz aniztuneko errealtate horri soluzio bidezkoa bilatu behar zaio, aintzat hartzeko bi alderdi nagusi dituela aitorturik: alde batetik, nork bere deitura gogoko duen hizkuntzaren grafiaz idazteko duen eskubidea, eta, beste aldetik, euskal deiturak euskal grafiaz idazteko eskubidea eta euskaldunen komunitateak euskaraz bizitzeko duen eskubidea.

Kasurako, gure hiri-herrietako kale-izenetan noiz erabili beharko lirateke norbanakoen euskal deiturak euskal grafiaz eta noiz erdal grafiaz? Galdera horren erantzuna berariaz aztertu du Onomastika batzordeak odonimiako eskuliburuan. Kontuan izanik euskararen idazkera-sistema arautua 1900. urtearen inguruan hasi zela finkatzen, irizpide hau baliatzea gomendatzen du Onomastika batzordeak euskal deiturak erabiltzeari dagokionez: XX. mendea baino lehen zendutako Euskal Herriko pertsonen deiturak idazteko, euskal grafia akademikoa baliatzea, euskara batuaren grafia alegia, salbuespenak salbuespen. Gerago zendutakoen kasuan, zabalik uzten da irizpidea:

pertsona horrek erabilitako grafia har daiteke, bai eta, aldaerak daudenean edo grafia zalantzazkoa denean, euskal testuetan pertsona hori izendatzeko erabilitako grafia ere. Edo grafia estandarra erabiltzea erabaki lezake udalak, kasuan-kasuan, inguruabarrak eta bestelako zertzeladak gogoan harturik. Ez da ahaztu behar kasuistika oso zabala dela. Izan ere, kale, plaza edo kideko bat eskaintzen zaien pertsonak askotarikoak dira. (Onomastika batzordea 2019)

Etorkizun hurbilean euskal deituren idazkera arautuaren eginbeharra osatzeko eta burutzeko, besteren artean, bi alderdi hauek merezi dute berebiziko azterketa: batetik, euskararen sistema patronimiko zaharrak gaur egungoan izan

dezakeen erabilera (*Lopitz*, *Peritz* erakoak) eta, bestetik, deitura konposatuen euskarazko erabilera (*Gartzia Garaioko* modukoak). Arazo hauek mahaigaineratu zituen Patxi Salaberri euskaltzainak 2018ko Arantzazuko batzarrean, “eus-kara batua eta antroponimia” izeneko hitzaldian. Orobat, euskaltzain nafarrak gogorarazi zuen euskal oikonimiaren ikerketan (hau da, etxe-izenen ikerketan) aukera gehiago dugula euskal patronimiaz jakiteko.

#### KALE- ETA KARRIKA-IZENEN ARAUTZE-LANA

Mende laurdena baino gehiago darama Euskaltzaindiak, Onomastika batzordearen bidez, kale- edo karrika-izenen buruzko irizpenak ematen eta handik eta hemendik iristen zaizkion kontsulta eta eskariei erantzuten. Atzera begira, askoz lehenago egokitu zaio Akademiari kale-izenen buruzko irizpidea ematea, erakundea sortu eta gutxira. Duela ia ehun urte, 1922. urtean, eman zuen lehenbizikoa, Bergarako Udalak eskatuta. Hala ere, Euskaltzaindia sortu aurretik ere bazen euskaltzaleen artean kaleen izenak euskaraz zuzen emateko nahia eta interesa. Esaterako, 1916. urtean, *Euskal Eснаlea* elkarteak zirkular bat bidali zien udalei. Horrela hasten zen idatzi hura:

Llevada de su noble afán de difundir y propagar la lengua vasca, la Sociedad EUSKAL-ESNALEA [...] celebró en el Teatro de los Campos Eliseos de Bilbao un grandioso mitin en el cual [...] se aprobaron las siguientes conclusiones relacionadas con la forma en que los municipios pueden trabajar en pro del euskera.

Lau ziren onartutako ondorioak, eta laugarrenak honela zioen: “Que pongan en euskera los nombres y rótulos de las casas y plazas y de cuantos lugares y dependencias tengan bajo su custodia”.

Gaur baino lehen, gomendio mailako irizpide-bilduma osatu du Onomastika batzordeak odonimiaren arloaz. Zehazki, 1999. urtean, “Hiri-izendegia: irizpideak eta erabiltzeko arauak” lana plazaratu zuen, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri batzordeko kideek paratua. Ondoren, 2008. urtean, *Euskera* agerkarian argia ikusi zuen “Kale-izendegia: izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak” lanak, Mikel Gorrotxategik prestatua. Harrezkero, Onomastika batzordeak irizpideak berrikusten eta egokitzen jarraitu du beharriaren arabera, kale-izendegien kopurua gehitzearen ondorioz izenen kasuistika bera handitu den heinean. Azken aldian nabaria da Ipar Euskal Herriko euskal karrika-izenen hazkundea. Maulekoa osatu du Onomastika batzordeak 2019. urtean, eta oso aurreratua dago Baionako karriken izendegia. Hegoaldekoetan aipamen berezia merezi du Iruñeko izendegiak. Lehendik burutua zen arren,

aurten berraztertu berri du batzordeak udalaren eskariari erantzunez. Guztia-ekin ere, azpimarratu nahi nuke arlo honetan Ipar Euskal Herriko Euskal Hirigune Elkargoarekin lankidetzan gauzatzen ari den proiektu garrantzitsua, herrietako karrika-izenak euskaraz jartzeko asmoz. Abian da dagoeneko egitas-moa eta aurreikuspena da pare bat urteko epean burutzea. Orotara, Ipar Euskal Herriko 158 Herriko Etxeei igorri zaie komunikazio ofiziala proiektuan parte hartzera gonbidatuz. Euskal Hirigune Elkargoak Herriko Etxetatik hartzen dituen eskaerak landu eta arautze-proposamenak helarazten dizkio Onomastika zerbitzuari, azter ditzan. Ondoren, Onomastika batzordeak onetsitako irizpi-deen bermearekin, izendegiak iristen zaizkie Herriko Etxeei, hala badagokio, deliberoa har dezaten.

Zinez, gizarte-proiektzio zabaleko esparru dira kale-izendegiak. Euskaltzaindiko Onomastika zerbitzura Administrazio Publikoetatik iristen diren kontsulta gehienak kale-izenei lotuak izaten dira. Hala, 2012-2018 bitarteko denboraldian hogeita zortzi kale-izendegi landu ditu Onomastika batzordeak, eta, aurreko urteetan, beste berrogeita hemeretzi. Guztira, azken hogeitaz sei mila karrika-izen baino gehiago aztertu eta proposatu dira Euskaltzaindiko Onomastika batzordean.

Urte hauetan guztietan metatu duen esperientzia partekatzeke eta erakunde-zen herritarren esku jartzeko argitara eman du Euskaltzaindiak *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak. Euskal odonimiako eskuliburu*. Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen helburua eta nahia da aurrez guztiok ditugun beharrezanetan erabilgarria izan dakigun. Horrela adierazten du Andres Urrutia euskaltzainburuak eskuliburuaren atarian:

Paperez zein webgunez, hona hemen Izenak bildumara datorren emaitza berria, erabilgarria ez ezik, onuragarria ere izan nahi duena, alor horretan ardura eta kezka duten guztientzat, direnak direla, administrazioetan, elkartean, auzoetan, argitalpenetan eta gainerakoetan. Hitz batez esateko, kale izendegia euskaraz landu nahi duten guztientzat. (Onomastika batzordea 2019)

#### TOPONIMIA TXIKIA ARAUTZEKO IRIZPIDEAK BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Mikrotoponimia terminoaren pean biltzen dira, konbentzionalismoagatik, toponimo txikiak esan ohi zaienak. Ezaugarri nagusia da halako toponimoak tokian tokikoak direla, eremu geografiko txikikoak, eta maiz hiztun gutxik erabiliak. Toponimia txikiak duen tamaina handiaz ohar gaitzen, aski da jakitea Euskal Corpus Onomastikoan (ECON) bildutako leku-izenetatik % 90 baino gehiago toponimo txikien sailean sartzen direla. Eta, aldi berean, “mikrotoponimia da askogatik kuantitatiboki eginkizun dugun eremurik zabalena” (Galé 2008).

Hamazortzi urte joan dira Onomastika batzordeak toponimia txikia arautzeko irizpideak finkatu zituenetik. Patxi Salaberri eta Mikel Gorrotxategi batzordeko kideek paratu zuten irizpide-bilduma hura eta Onomastika batzordearen onespenearekin argitaratu zen *Eusker*a agerkarian. Ondoren, 2005. urtean, Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia arautu eta irizpideak landu zituen Eusko Jaurlaritzarentzat. Proiektu hartan, Onomastika batzordeak gertutik jarraitu zituen lanak eta bukaeran irizpide haiei baliotasuna eta bermea aitortu zien. Orduetik hona, leku-izenen tipologia zehazten eta ondare dokumentala zabaltzen joan da etengabe. Hortaz, urte horien ondotik uste dugu abagunea dela toponimia txikia arautzeko irizpideez hausnarketaldi sakona egin dezagun. Gogoeta-prozesu global horri ekingo dio Onomastika batzordeak 2020. urtean zehar, eta xedea da ondorioak hurrengo urtean aurkeztu eta argitara eman ahal izatea.

Toponimoen arautze linguistikoa gauzatzean, haxe da funtsezko helburua: leku-izenen idatzizko eta ahozko tradizioak aintzat harturik, belaunez belauneko forma linguistikoen jarraitutasuna bermatzea eta guztion ondarea babestea. Guztiz argi izan behar da euskal toponimo guztiak, handi zein txiki, guztion ondare direla, alegia euskaldunon komunitate osoarena, eta ez tokian tokiko hitzunena bakarrik. Funtsezko ideia hori argi eta garbi adierazi zuen Koldo Mitxelena duela berrogei urte *Euskal Herriko Udalen Izendegia* liburuxkaren aurkezpenean: “euskal leku izenak euskaldun guztion aberastasun eta aberasgarri baitira, ez herri bakoitzeko herritarren ondasun soil” (1979).

Komplexutasuna duen gaia da, eta, zenbait aldiz, eztabaida-iturri ere bilakatu daiteke izen batzuen arautze-lana. Irizpide soziolinguistikoak aintzat hartu behar dira, eta, ahal den neurrian, uztartu, jakinik sarritan oreka lortzea zaila izan daitekeela, eta leku-izenen tradizioan iraunkorragoa izan ohi dela idatzizkoa, ahozkoa baino kontserbadoreagoa.

Esan bezala, garrantzizkoa da toponimoen idazkera zuzena arautzea, baina lan antzua bilakatuko da jarraian egoki gizarteratu ezean, erabilera ofizialean islarik ez badu. Leku-izenen herri-erabilera sustatzeko, berebiziko baliabide eraginkorrak dira udal-mapak, toponimiaren zabalkundearen hurbiltasun handikoak baitira herritarrentzat.

## UDAL MAPAK

Aipatu dugun moduan, oso tresna egokiak dira udal-mapak toponimoak gizarteratzeko eta bizirauteko lanean, baldin eta jasotzen diren leku-izenak ondo araututa badaude, eta, hortaz, erabilera zuzena sustatzen badute. Euskal Autonomia Erkidegoan gaurdaino Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak hirurogeita

hamar bat udal-mapatan parte hartu izan du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPSrekin) gertuko lankidetzan, kasuan kasuko udalei aholku eta orientabide onomastikoa emanaz.

Goraxeago nabarmendu berri dut zein funtsezkoa den udal-mapetan bildutako leku-izenen zuzentasuna, eta ezaugarri hori erdiesteko bermerik handiena dela arautze-irizpide egokiak aplikatzeaz gainera, aurretiaz zehaztasun nahikoa duten tokian tokiko ikerketa-lanak burutzea. Bi baldintza bete behar dituzte halako ikerketek: ahozko bilketa exhaustiboa egitea eta dokumentazio historiko zabala baliatzea. Tamalez, ezinbestekoa den aurretiazko lan hori oso gutxitan egin ohi da gurean. Dirua eta denbora ditu etsai edo kontrako. Orain arte, ikerketa gehixeago egin izan da Gipuzkoan, nabarmen gutxiago Bizkaian, eta Arabakoa da denetan goera ahulena duena.

Alde batetik, ikerketa horiek gutxieneko hornidura ekonomiko bat behar dute udal-aurrekontuetan, eta udal-mapa egiteko erabakia hartzen denean sarritan epe estuan gauzatu nahi izaten dute agintariek. Toponimia-ikerketa gehiagoren premia larrian gaude. Horrenbestez, ezbairik gabe, udal-mapa gehiago behar dira, baina ez edonola eginak, hizkuntza-bermerik gabeak, aho biko ezpata bihur ez daitezten. Okerrena litzateke toponimiaren normalizaziorako, onuragarria izan ordez ondarearen aurkako ondorio kaltegarriak ekartzea.

#### IKERKETA-LANETAN GASTEIZKO EGITASMOA

Egitasmo hau 1996. urteaz geroztik hezurmamitzen ari da, Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren babesean. Gasteiz lurrez Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk zabalena da (277,20 km<sup>2</sup>). Hiriaz gainera, hirurogeita lau herriz osatua. Bertako toponimia sistematikoki ikertzen eta finkatzen ari da, hainbat iturri dokumentaletako 400.000 sarrera onomastikoz osatutako datutegi oparo bat erabiliz. Aurtengo abendurako bildumaren zazpigarren liburua bukatuko du Elena Martínez de Madina batzordeko kideak. Berak lantzen ditu ikermaterialak eta ontzen ditu testuak egitasmoaren hasieratik beretik. Aurreko liburuak bezala, Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratuko da. Hurrengo urratsa izango da Dibiña merindade zaharreko lehenengo liburua prestatzea, zazpi herriz osatua.

Egitasmo bikain eta eredugarria da hau, zabalera handiko beste udalerrri batzuetan ere gauzatzeko modukoa. Xedeagatik eta metodologiagatik Gasteizkoaren parean jar daitekeen bakarra dugu José María Jimeno Juríok, Iruñerriko toponimia aztergai hartuta, sei liburutan paratu zuena.

Gasteizko udalerriko Toponimia egitasmoaren xedea ez da inola ere izengordailu hutsa izatera mugatzen. Egitasmo honetan toponimoak tokian tokiko

historia eta kulturaren ekarle dira, transmisio-katea etenik gabe ondorengoen-tzat erabileran bizirik iraunarazi behar den aberastasuna. Nahitaezkoa da leku-izenen balioa nabarmentzea, beren ezagutza suspertzea eta erabilera zabaltzea. Horrexegatik, Gasteizko egitasmo hau toponimia gizarteratzeko lanabes eraginkor gisa sortua da.

Bukatzeke tenorea da. Aipatu ditudan zereginak ez dira, noski, Onomas-tika batzordeak aurrera begira, epe ertainera, dituen bakarrak. Ziur aski guztiak ez dira hemen bildu, baina espero dut behintzat premiazkoenak direnetan le-rootara ekarri gabe geratu denik ez izatea.

## BIBLIOGRAFIA

- EUSKALTZAINDIA (1979). *Euskal Herriko Udalen Izendegia*.  
 — (1991). *Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila*. Gas-teiz: Euskaltzaindia.
- GALÉ, Patxi (2008): “Toponimia ikerketen oinarri teorikoak”, *Euskera*, 3, 601-612.
- GALÉ, Patxi; IÑIGO, Andres (2005): “Euskal corpus onomastikoa”, *Euskera*, 50, 1, 9-105.
- GORROTXATEGI, Mikel (2009): “Kale-izendegia: izenak hautatzeko irizpideak eta erabil-tzeko arauak”, *Euskera*, 54, 1, 265-277.
- GORROTXATEGI, Mikel; SALABERRI, Patxi (1999): “Hiri-izendegia: irizpideak eta erabil-tzeko arauak”, *Euskera*, 44, 1, 583-588.
- (2001): *Euskal izendegia: ponte izendegia*. Gasteiz: Euskaltzaindia.
- ONOMASTIKA BATZORDEA [Gorrotxategi, Mikel, prest.] (1998): *Euskal deituren izende-gia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ONOMASTIKA BATZORDEA [Mujika, Alfontso, prest.] (2019): *Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak. Euskal odonimiako eskuliburua*. Bilbo: Euskal-tzaindia.



## ARAUKETA ETA IKERKETA, ELKARREN ADISKIDE BEHARRAK

PATXI SALABERRI  
(NUP—Euskaltzaindia)  
salaberri@unavarra.es

Ezaguna da euskaraz esaera edo erranairu hau: *atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu*. Lehen aldiz hori jaulki zuena ez zen, segur aski, onomastikan pentsatzen ari, are gutiago noizbait Euskaltzaindiaren barneko Onomastika batzordearen jardunbidean. Halarik ere, ederki datorkigu guri, izenez dihardukagularik.

Egia da kritika, gehienxkoenetan erre-kiskalgarria, beti izan dugula eta gero ere izanen dugula onomastikaren arloan, zer ere erabakitzen baitugu Euskaltzaindian, nola ere jokutzen baitugu, kanpoan bai baitira *sniper* edo frankotirtzaile gogotsu batzuk, higitzen den zeinahi hegatziri tiro egiteko aiherrak daudenak. Berak ez dira funtsezko gauzarik egiteko gai, eta, holakoetan agitu ohi den moldean, besterenaren aurka jo behar.

Egia da, orobat, gerok ere anitz aldiz merezimendurik aski geureganatu dugula kritikak jasotzeko. Talde lana ez da, nire iritzian, erraza, izan baitira lan egiteko gutizia handirik ez zutenak, «tarte on bat» ematera elkartzen zirenak, edo, gaitz erdi, borondate ona bai, baina batzordeko lanerako astirik eta betarik ez zeukatenak, txostenak egiteko abagunerik harrapatzen ez zutenak, lanez lepo egoten baitziren, iduriz ittoak.

Bestalde, zenbaitek *ego*-a franko igoa ukan dugu arduraxko, geurea atera nahi aitzina, kostatzen dena kosta, ezin etorkorrek izan, eta horixe behar da, behar ere, taldean txukun aritzeko: jende prestu eta prestatua, lan egiteko gertu



dagoena, besteen iritziak ulertzera entseatu eta makurtzen direnak. Egoskorrak ezagutu ditugu, kalakan ibili zaleak ere bai, hitz eta pitz eleka aritzeko heraberik ez zutenak baina lanari lotzeko izukor ikaragarriak zirenak. Ttarrapattak, gauzak zalapartaka eta nolana hika egiten zituztenak ere soberan eta soberakin ukan ditugu.

Lurrera nadin. Gibelak gauzak nola ez diren egin behar erakutsi digu. Ez dakit ikasi dugun. Gerra aitzineko denbora haietan behiala Nafarroakoa eta egun Arabakoa den *Guardia* ezagunaren euskarazko izena *Biasteri* zela gogoak eman zion norbaiti, eta hala erran eta idatzi. Gero, jakina, *Biasteri*, izatekotz ere, *Viñaspre*-ren izenaren aldaera zenbait zatekeela ikusi genuen, baita agiri oinarri handirik ez zuela ere.

Hamarkada batzuk geroago, Mitxelenak aipatzen duen «berrogeizaro aspergaria» igaro eta, norbaiti Nafarroako Erriberako hiriburuaren izena *Muskaria* zela otu zitzaion, antzinateko testuren batean azaltzen zelako, ohartu gabe erdarazko *mosquera* 'abaroa', 'gorkua' deitzen den horren aldaera zaharra besterik ez zela.

Besteren bati aspaldi *Ihiga* eta geroztik, baita euskal mikrotoponimian ere, *Iga* lekukotzen den oronimoaren zinezko euskal izena *Elomendi* zela begitandu zitzaion, *Iga*-ren nondik norakoa eta noiztikakoa aztertu gabe, bistan da, aise errazagoa ohi baita gauza berriak asmatzea ikerketari ekitea baino, honetarako denbora gehiegi behar baita, nonbait! Eta egia da *Elo* erdaraz *Monreal* deitzen den herriaren euskarazko izena dela, hori segur baino seguragoa da, baina mendiak ez du oraingoan deizioa herritik beretu.

Trantsizio garaia berezixkoa izan zen euskal onomastikarendako: bat-batean atek eta bortak ireki ziren, eta ordura arte ezin ukituzkoa zena bete beharreko bilakatu zen: mapak, testuliburuak, errepide seinaleak eta beste idazteko eta egiteko leku bakoitzak bere euskal izen egokia behar zuen, eta lehenbailehen gainera. Ni beti harritzen naiz, Mitxelenaren lanak irakurririk, hizkuntzalari handiaren zorroztasun izugarria ezagututa, nola bultzatu zituen, edo onartu berderik, 1979an argia ikusi zuen *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n, zenbaitetan izartxoarekin bada ere, ageri diren itzulpen estonagarriak: *Agilar* = *Arranotegi*\* (N), *Baños de Ebro* = *Baños* = *Mainueta*\* (A), *Cabredo* = *Kabredo* = *Ahuntzegi*\* (N), *Piedramillera* = *Piedramillera* = *Miliarri*\* (N), *Ribaforada* = *Ribaforada* = *Erripazuloaga*\* (N), *Sopuerta* = *Sopuerta* = *Garape*\* (B), *Torres de Río* = *Torres* = *Dorreaga*\* (N), *Villabuena* = *Uriona*\* (A), *Losarkos* = *Urantzia* (N) eta beste. Hauek paperean gelditu ziren gehienetan, baina, haatik, kritika errukigabeen iturbegi izan dira gero Onomastika batzordean aritu garenondako.

1979ko lan horretan usu euskaraz dauden ereduak ibiltzen dira etsenplutako: *Berantevilla* = *Beranturi* (A) eta *Genevilla* = *Uxanuri* (N), *Ribera Alta* = *Erribera Goitia* -a\* (A), *Ribera Baja* = *Erribera Beitia* -a\* (A), *San Martín de Unx* =

*Donamartiri-Untz* (N), *Unciti* = *Untzitibar* (N, herritik bereizteko), *Urraul Alto* = *Urraul-goikoa* (N), *Urraul Bajo* = *Urraul-Behekoa* (N) (*sic*). Beste batzuetan ez dakigu garbi zein den eredua: *Arguedas* = *Argetas* (N), *Cadreita* = *Kadereita* (N), *Cintruenigo* (*sic*) = *Zentroniko* (N), *Villatuerta* = *Bilatorta* (N). Irudi luke hauetan euskararen arau fonologikoak ezartzen direla, 1979an bizirik ez zeudenak ere: bokal artean ustez jatorrizkoa zen ahoskabea euskaraz atxikitzea (*Argetas*, *Zentroniko*, N), bokal anaptiktikoa eranstea (*Kadereita*, N), diptongoaren ordainetan bokal osoa ematea (*Bilatorta*, *Zentroniko*, baina *Tiebas* hala ere, ez *Tebas*, N), espainoleko [x] soinuaren ordez palatala sartzea (*Desojo* = *Desoio*, N) eta abar.

Lan horretan gero ibili den bidea urratu zen, hain segur ere norbaitek biziki gustuko ez duena. Ozen ondoko txistukariak neutralizatu egiten dira, afrikatuaren alde betiere: *Abárzuza* = *Abartzuza* (N), *Ancín* = *Antzin* (N), *Ansoáin* = *Antsoain* (N), *Arcentales* = *Artzentaletas* (B), *Armañanzas* = *Armañantzas* (N), *Berbinzana* = *Berbintzana* (N), *Carranza* = *Karrantza* (B), *Elciego* = *Eltziego* (A), *Esparza* = *Espartzza* (N), *Unzue* = *Untzue* (N). Hauek, jakina, *Abalcisqueta* = *Abaltzisketa* (G), *Alçay* = *Altzai* (Z), *Alsasua* = *Altsasu* (N), *Alzo* = *Altzo* (G), *Anzuola* = *Antzuola* (G), *Aránzazu* = *Arantzazu* (B), *Bustince* = *Buztintze* (NB), *Ulzama* = *Ultzama* (N) eta bestetatik hartzen zuten eredu, irudiz egoki.

Beste batzuetan izena benetakoari hurren zen, baina ikerketa faltak ez zuen gauzak xuxen nola izan ziren ikusten uzten: *Aibar* = *Oibarre* (N), *Amescoa Baja* = *Amezkoa-behekkoa* (N), *Ujué* = *Usua* (N)... Zenbait aldiz *in situ* erabiltzen zen forma onetsi zen, *Aranaz* = *Arantza* konparazioe, historia luzeko inguruetako *Arana(t)z* alde bat utzirik.

Hitz bukaeran, zenbait aldiz behintzat, afrikatuaren aldeko hautua egin zen, toponimoaren aldaera hori kasu guztietan bizirik ez bazegoen ere: *Aoiz* = *Agoitz* (N), *Araiz* = *Araitz* (N), *Biurrun-Olcoz* = *Biurrun-Olkoz* (N), *Oiz* = *Oitz* (N), *Oloriz* = *Oloritz* (N), *Urroz* = *Urrotz* (N, bi) eta beste. Atzizki ezaguna denean halaber: *Ciriza* = *Ziritza* (N), *Echarri Aranaz* = *Etxarri-Aranatz* (N), *Oteiza* = *Oteitza* (N), *Zabalza* = *Zabaltza* (N). Beste batzuetan, ordea, igurzakaria lehenetsi zen, arrazoi garbirik gabe: *Atez* = *Atez* (N), *Guesalaz* = *Gesalaz* (N).

Zenbaitetan, nonbait, ordura arte egindako bilaketa eta bilketa lanak aldaera biziak aukeratzera eramane zituen batzordekideak. Hauxe gertatu zen, antza denez, Iparraldeko herri izen askorekin, eta hemen dugu berranalisiaren ondorio den amaierako *-e* zorionekoaren bedeinkapena, Dassanceren 1966ko lanak (besteak beste direla) eta eguneroko erabilerak bulkatzen zutena: *Armendarits* = *Armendaritze* (NB), *Ascain* = *Azkaine* (L), *Barcus* = *Barkoxe* (Z), *Bardos* = *Bardoze* (L), *Urepel* = *Urepele* (NB). Nafarroako ekialdeko izenekin ere gauza bera egin zen: *Ezcaroz* = *Ezkaroze*, *Oronz* = *Orontze* (N), *Uztarroz* = *Uztarroze*, *Vidangoz* = *Bidankoze* (*sic*)... Baina ez Bizkaikoekin: *Gorliz* = *Gorliz*, *Lemoniz* = *Lemoiz*, *Urduliz* = *Urduliz*.

Zernahi gisaz, eta bekatu larri batzuk egin baziren ere, proposatu ziren izenetako anitz, ikusi dugun bezala, arras egokiak ziren. Beste zenbaitetan, ikerketarik egin gabez, erdarazko izena edo hurbileko aldaeraren bat hautetsi zen euskararako ere, etimoa bera zelarik bi hizkuntzetan: *Arroniz* = *Arroniz* (sic) (N), *Artajona* = *Artaxona* (N), *Larraona* = *Larraona* (N), etab.

Forma zaharren aldeko apustua ere nabaria da: *Sorlada* = *Suruslada* (N), *Ujué* = *Usua* (N), baita aldaera laburtuen aldekoa ere, Nafarroan segurik: *Ochagavía* = *Otsagi*, *Olazagutia* = *Olazti*, *Orbaiceta* = *Orbaizta*... Halaber Nafarroa Beherean, inoiz: *Ibarolle* = *Ibarla*. Bizkaian *Bilbao* = *Bilbo* dugu, baina *Arrigorriaga* konparazio batera. Lapurdiko *Brisous* = *Beskoitze* berezikara da, *Beraskoi(t)z* Leizarraga (XVI. m.) eta Haranederren (XVIII. m.) testuetan ediren arren, geroko lekukotasunik ez dagoelako, dakidanez.

Ez naiz gehiago luzatuko honetan. Gero, 1990ean argia ikusi zuen *Nafarroako Herri Izendegia* etorri zen. Sasoi hartan sartu nintzen ni batzordean, Jimeno Jurio-  
ren eskariz, artaxoarra izan baitzen lan haren zuzendaria, artxibategietan datuak bildu eta herriz herri ahozko formak jasotzen ibili zena, ni bidelagun harturik. Iñi-  
gotarrak ere, Andres eta Patxi, ibili ziren datu bilketan, izendegia osatzeko. Gero, erabakiak Onomastika batzordean hartu ziren, kideztat, besteak beste, Ciérvide, Davant, González Salazar, Orpustan, San Martin eta Satrustegi zituen batzordean, Jimeno Jurio bera, Andres Iñigo eta hiruroz gainera. Buru Henrike Knörr zen eta idazkari José Luis Lizundia. Mitxelena eta Goihenetxe orduko zenduak ziren eta ez zuten, nik dakidala, hartutako erabakietan ikuskizunik izan.

Erabaki horiek munta handikoak izan ziren, Nafarroako herrien euskal izenen (eta izen ofizialen, kasu askotan) nolakoa finkatu zutelako. Gero, lehenik Matías Múgicak eta José Luis Mendozak (1993) «egurra» eman zioten lanari, aldez arrazoiz, aldez arrazoirik gabe, eta ondoren Mikel Belaskoren txanda iritsi zen, 1996ko edizioan partikularki, 1999an egileak bestelako jarrera erakusten baitu. Ni batzordean erabili ziren aldagaiak eta arrazoiak azaleratzen eta azaltzen saiatu nintzen (1995), alferrik segur aski, ez baitzen eginkizun aisita. Honekin loturik daude batzordearen izenean 1997an *Euskeran* euskaraz atera zen artikulua eta nirean ondoko urtean FLVn erdaraz argitaratu zena, Nafarroako herri izenen arautzearen gainekoak.

Ez naiz hasiko hemen irizpideak banaka eta bederazka ikusten, ez baita hori egungo gaia. Bakarrik aipatu nahi nuen eta dut, afera ongi ezaguna izan arren, toponimia anitz aldiz eztabaida iturri izaten dela, hainbat aldagai sartzten baitira jokoan arlo horretan, herrien izenetan bereziki: hizkuntza gaiak dira asko —hizkuntzalariok toponimiaren lanketa eta azterketa batez ere zeregin «linguistikoa» dela pentsatzen eta erraten dugu—, baina gizartearekin ere zuzenean loturik dago beste aldetik, eta, beraz, baita politikarekin ere, gustatu ala ez. Ezaguna den bezala, toki izenek balio sinboliko handia dute, erraterako *Navarra*

vs *Nafarroa* bikoteak duena har dezakegu ahotan, edo, hemendik kanpo, lehen *Mazedonia* eta orain *Ipar Mazedonia* deitzen den estatuaren eta Greziaren artean izan den ahakarra aipa daiteke, ondoren politiko zuzenak ukan dituen, berriki arazoa arranjatu den arte.

1990eko lanean lehen ikerketa saio serioa egin zela uste dut, epaile eta parte banaiz ere: artxibategiak miatu eta arakatu ziren eta Nafarroako herrietan ahozko datuak ere bildu ziren, ordura arte sekula egin ez zen moduan. Hondarreko hau egun era hartara egitea ezinezkoa litzateke, berriemaile haietako anitz hil direlako, adin handia baitzuten askok. Nolanahi ere, ikerketaren hasi-masiak izan zirela erran dezakegu, eta geroztik saio batzuk egin badira ere, anitzez lan sakon gehiago, doktore tesi haboro behar genituzke gauzak nola diren errotik, zalantzarik gabe edo zalantza askorik gabe, jakiteko.

Artxibategiko lanari doakionez, mikrotoponimiak eta oikonimiak oraino ere gauza anitz azaleratu behar dizkigute (adibidez, herritarren izenak ez dira gutxi etxe izenetan), eta ez bairik gabe agertuko diren testuek ere argia ekarriko diote alorrari, bai eta hondarreko urteotan karrikatzen ari diren dokumentu bildumek ere, ardura leku izenen euskarazko forma zein zen xuxen jakiteko urrearen parekoak diren horiek, ezaguna denez gure hizkuntzaren desagerpenak lana zaildu baitigu onomastikarior, Euskal Herriko alderdi zabal zenbaitetan, Araban eta Nafarroan batik bat. Honek ez du erran nahi, inola ere, ahozko datuen bilketari uko egin behar zaiola, baina garbi dago jasoko ditugun datuak gero eta forma ofizialek «kutsatuago» egonen direla. Hau hein batean baizik ez da txarra euskararendako, forma ofizial horien zabalkundeak, zuzenak diren ber, hizkuntzaren normalizazioaren alde egiten baitu, bistan denez.

Aipatutakoa ikerketa da. Eta arauketa zuzena izan dadin, alegia, ematen diren arauak ongi funtsatuak egon daitezten, hura baitezpadakoa da, ezinbestekoa, beste gisan bide egingen duten forma makurrak proposa daitezkeelako (proposatu egin dira, gorago adierazi eran), gero zuzentzen lanak ematen dituztenak, ikusi bezala.

Gainera, bestalde, ikerketak irizpideak finkatzen laguntzen digu, handizki laguntzen, gaur egun bizirik eta zabaldurik dauden hizkuntza ezaugarriak edota azken denboretan hala egon direnak behiala ere bizirik eta egun baino are hedatuago zeudela erakusten eta ikusarazten digulako. Erraterako, Sarrigurengo 1761eko *Ardachabidea* mikrotoponimoak lau gauza erakusten dizkigu, garden erakutsi ere:

1. Bokal arteko sudurkari ahula lehenik hasperendu egiten zen eta ondoren lekutzen (tarteko urrats zenbait aipatu gabe): *Ardanatz* > \**Ardabatz* > \**Ardaatz*.
2. Sortzen zen bokal berdinen multzoa bakundu egiten zen: \**Ardaatz* > *Ardatz*.

3. Toponimoaren akabailako txistukaria afrikatua zen: *Ardatz* dago, ezbairik gabe, *Ardach-* horren azpian; aintzat har bedi etimo ongi lekukotua *Arđanatz* dela.

4. txistukariz bukatzen ziren leku izenen adlatiboaren marka *-a* hutsa zen, ez *-era*, egun honen aldeko joera dagoen arren, euskara «batuan».

Bide beretik, dokumentazioko *Aizcoa-k*, *Alduate-k*, *Audica-k* eta *Ledea-k*, eta berebat Zaraitzun belarriz ukan *Ledia-k*, argi adierazten digute euskaraz aipatu sudurkaria desagertzen zela (*Azcona*, *Aldunate*, *Audicana* eta *Liédena* dira erdal aldaerak), arau orokorra zela gure hizkuntzan, ez zela nonbaiteko zokokeria edo norbaiten zozokeria, Euskal Herrian barna nonahi edireten dugun erregea baizik.

Bestalde, 1201eko *Çudari-k*, 1276ko eta 1350eko *Çudayri-k* 1710eko *Zudairidermaua* irakurketa ez guztiz argia baiesten eta berresten dute, eta, XIX. mendearen bukaera arteko *Mugairi*-rekin alderatzen dugunean, edo Arabako *Arkauti*-rekin egiten dugunean, garbi dakusagu *Zudaire*, *Mugaire* eta *Arcaute* formak, euskara bizirik egon edo ez, erdararen eraginari zor zaizkiola, gaztelaniaz, ezaguna den bezala, amaieran *-i* duen ondare zaharreko hitzik ez dagoelako. Joera berari zor zaio, ezbairik gabe, García Larraguetak 1957ko agiri bilduman dakarren *Orti de Çubielque*, jakina den moduan herriaren izena egun oraino *Zubielki* baita. Honek erran nahi du hizkuntza ofizial(ar)en oldeak, edo Administrazioarenak nahiago bada, toponimoen bukaerako *-i* ireki eta *-e* bilakatzaren alde egiten zuela, eta beste horrenbeste agitzen zen gure toki izenetan usaiakoa den akabailako *-u* belarrarekin, kasu honetan emaitza *-o* izanagatik; *cf.* adibidez, Arabako erdarazko *Zuazo de San Millan*, Lazarragaren lanean *Zuazu* idatzia: «*Joan Lopez jauna Çuaçuco*», «*Cristobal jauna, Çuaçuco ene adisquidea*». Honetaz ikus Salaberri (2015: 33, 401-402, 408-409).

Dokumentazioan makina bat aldiz azaltzen den *Arci*, *Arçi-k* ere, erdarazko *Arce*-rekin erkatzen denean, bukaerako bokala euskaraz *-i* zela eta erdaraz *-e* bihurtu zela, ireki zela, erakusten digu, eta belarriz jasotako *Artzibar*-ek, literaturan ere ageri denak, dardarkariaren ondoko txistukaria afrikatua zela frogatzen du. Honek eta euskara bizirik dagoen alderdi zabaleko euskaldunen mintzoak ozen ondoan txistukariak neutralizatzeraren eraman gaitzakete, hau da, euskal erabilerarako, aipatu 1979ko eta 1990eko lanetan egin zen eran, *Berbintzana*, *Faltzes* eta *Martzilla* lehenestera, hiru toponimoon etimoa eta bilakaera erdaldunak izanagatik ere. Hots, Nafarroan eta, oro har, Euskal Herriko eremu hedatu batean indarrean egon den eta dagoen araua hobestera eraman gaitzake.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Nolanahi ere, ez dakigu *Artzi*-ren etimologia zein den, eta, beraz, ezin dugu ziurtatu txistukari afrikatua dardarkari ondoan egotearen ondorioa dela. *Ultzama*-n, adibidez, *-tz-*

Beraz, ikerketak, gauzak nola izan diren eta diren ikusteak, eta hola zergatik izan diren eta diren jakiteak, ezezagun zaizkigun beste kasu batzuetan berdin jokatzera eraman gaitzake, irizpide bat edo beste hartzera bulka gaitzake, Nafarroan —ez Araban edo Bizkaian— txistukariz akitzen diren toponimoak afrikatuz arautzera adibidez, edo, grafiak grafia, *Bakedao*, *Dorrao*, *Galdakao*, *Lazkao* eta beste ukanik, *Guirgillano* nafar toponimoaren euskarazko aldaeratzat *Girgillao* beldurrik gabe proposatzera, agirietan agertu ez arren, oraintsu arte.

Egia da datuak izanik ere gero erabakiak hartu behar direla, datuek ardura gauzen trenkatzeko modua argitzen dutela, baina beste anitzetan onomastikariak berak egin behar duela zirt edo zart, josi edo urra, gauzak zenbait aldiz ilunxko egoten direlako. Honek, alabaina, ez gaitu libratzen ikertzetik, ikerketa ezinbestekoa baita onomastikaren arlo guztietan, eta zer erranik ez orain ukituko dudan mikrotoponimian. Etsenplu anitz ekar litezke hona; bakarra hartuko dut ahotan, hala ere: Luzaideko *Arbanta* toponimoa (Kamino eta Salaberri, egiten ari).

*Arbanta*-k, Ibañeta aldera, Luzaidetik goiti dagoen *Gainekoleta* auzo eta aurkintzako gunek bat izendatzen du, harkaitz franko diren bat. Ebakerak ez digu deus handirik argitzen: paroxitonoa da toponimoa, Luzaideko gehienak bezala, eta *Arbánta* erraten da. Bertan bada ur biltegia (*Arbantako depositua*), erreka (*Arbantako erreka*), zokoa (*Arbantako zokoa*) eta zubia (*Arbantako zubia*), eta meatzeak ere izan dira XIX-XX. jendamenteetan (*Arbantako minak*<sup>2</sup>).

Aurkintza harrizua dela, eta bertan haitzak, harkaitzak badirela jakiteak aztarren bat eman diezaioke onomastikari adituari: toponimoaren hastapeneko *Ar-* hori *harri*-ren elkartetako aldaera izan daiteke, hasperenik ez izateak anitz laguntzen ez badu ere, jakina baita Luzaiden *hárri* erraten dela oraino. Zernahi gisaz, hasperenaren erabilera maldan behera doa, eta gainera toponimian, toki izen baten osagai batek jatorrizko lexemarekiko esteka galtzen duenean, edo toponimo osoak, ibiltzearen bortxaz, hastean zuen gardentasuna galtzen duenean, «iluntzen» denean, ulergaitz eta are ulertezin bihurtzen da hiztunarendako, eta aise da, egoera horretan, hasperena lekutzea edo soinu aldaketa edo galera zenbait izatea, konparazio artikulazio puntu bereko baina modu banatako soinuak bateratzea (*Legarritsusi* > *Leasusi*, Luzaiden berean).

*Arbanta*-ren kasuan ez da ikerketa handirik egin behar haren nondikakoaren berri izateko, baina ikertzea nahitaezkoa da, beste gisan egun ibiltzen den aldaera

---

jatorrizkoa da, ez zaio albokoaren gibelean egoteari zor, Erdi Aroan-eta txistukari afrikatuarekin baina albokorik gabe lekukotzen delako.

<sup>2</sup> Bide batez erranik, meatzeen izenak ez ziren *in situ* ezartzen, eta aski bitxiak dira, leku izentako segurik, denak erdarazkoak: *La Antigua*, *La Circasiana*, *La Ensayada*, *La Esperanza*, *La Imposible*, *Pepita*, *Unión* (*Harpeko erreka* eta *Arrollandietako erreka* bertan batzen zirelako) eta holako. Gure akulturazioaren beste erakusgarri bat.

eboluzionatua onetsi beste biderik ez genukeelako, eta ziurrenik ez da hori jokamolderik egokiena. Izan ere, onomastikariaren eginbearra, toponimoren bat arautu nahi duelarik, haren «historia» ezagutzea baita: nola dokumentatzen den hasmentan, nola eboluzionatu duen gero eta zer bilakatu den hondarrean, leku izen bakoitzean gure kultura ondarearen zatitxo bat ezkututzen delako, urregorria balitz bezala atxiki eta artatu behar duguna.

Toponimoak zer izendatzen duen jakitea ere munta handikoa da, hau da, dermioa nolakoa den eta, *Arbanta*-ren kasuan bezala, harririk baden edo ez den jakitea, adibidez. Gainera, ikerketatik —ez toponimo bakarrarenetik bistan da— eta arautu beharretik sortzen dira, erreposki-erreposki eta emaro-emaro, onomastikariondako hain garrantzizkoak diren irizpideak, gure onimoei merezi duten duintasuna ematen dietenak, erraterako Etxarri Aranazko mendietan norbaitek paratu duen *Kostuelgo iturriye* bide seinaleak egiten ez duena, hola hasiz gero hizkuntza idatzirako ere *iturriya*, *iturrixa*, *iturrixe*, *iturrii*, *turria*, *turrie* eta beste hamaika holako onetsi behar genituzkeelako, Euskal Herrian gaindi.

Aztertzen ari garen toki izena dela eta, *Arbanda* eta *Arbandieta* formak azaltzen zaizkigu 1899an, *La Esperanza* meategia erregistratzeko egin txostenean. Bukaera horiek ikusirik, argixko gelditzen da *-eta* leku ugaritasunezko berrekailua dugula toponimoan, noiz laburtua (*Arbanda*), noiz laburtu gabe (*Arbandieta*); egungo *Arbanta*, derragun bidenabar, bien arteko uztardura edo erdiko urratsa dela dirudi.

Meategien dokumentuak arakatzen jarraitzen badugu, ikusiko dugu ia mende erdia lehenago, 1850ean, xede berarekin izkiriari txostenetan hauek ditugula: «...*que se halla una mina de hierro, sin demarcar, que en lo sucesivo se conocerá bajo el nombre de la Antigua, sita en el Monte de Arburuandietia y parage llamado Lardi-errecá*» (NAI, meatzeak: La Antigua, 1. or.), «...*que existe una mina de hierro, sin demarcar, que en lo sucesivo se conocerá bajo el nombre de la Circasiana, sita en el Monte de Arburuandietia y parage llamado Arrullandietia, termino municipal de Valcarlos, que linda por E[ste] S[ur] E[ste] con el monte de Eliza-char [...]*» (NAI, meatzeak, La Circasiana, 1. or.; izkirio lodia nirea da bi aipuetan).

Geroztik, toponimoaren etimologia ia guztiz garbi gelditzen da, ikerketa pixka bat edo puxka bat eginda: *har-* ‘harria’, *buru* ‘goitiko alderdia’, ‘gaineko alderdia’, ‘gaina’, *handi* adjektiboa eta *-eta* leku ugaritasunezkoa bide dira osagaiak. Gero arautzaileak gibelerara noraino joan behar duen trenkatu behar du, herria oraino euskalduna den edo ez den aintzat harturik, besteak beste direla, hots, erabaki behar du aldaera araututzat egungo *Arbanta* hautetsi behar den, 1899ko *Arbanda*-ra edo *Arbandieta*-ra itzuli behar den, edo etimotik hurbilago dagoen *Arburuandietia* ez horren aspaldikora jo behar den.



Beste aukera, *Harburuandieta* dokumentatugabea hautatzea da, jatorria, ustez behintzat, argia delako. Alabaina, oraindik ez dakigu 1850-1900 tarte horretan gauzak nola ziren; badaiteke 1850eko *Arburuandieta* dokumentuetan baizik atxikitzen ez zen forma izatea, eta orduko ahoz jendeak gehienbat *Arbandieta* erratea, edo biak batean bizirik egotea, alegia, dimorfismoa izatea, baina ez dakigu zinez hala zenetz. *Harburubandieta* forma etimologikoagoa bazter utzi behar genukeela dirudi, Grassmannek zernahi erranik ere<sup>3</sup>, *hilarrita* ‘hilarrieta, hilerria’ izen arrunta ikusirik, konparaziorako.

Etorkia «ustez behintzat» argia dela erran dugu, eta hala da, argia da, baina neurri batean bakarrik, ez guztiz, orain ikusiko dugun moldean. Seguru egoteko ikerketa sakonagoa egin beharra dago, Luzaideko eta inguruetako toponimia zahararen berri jakin behar dugu, eta «inguruetako» diogu Nafarroa Garaia Nafarroa Beheretik politikoki bereizi zenez geroztik Luzaideren eta Banka (berrixkoa da), Lasa, Uharte Garazi eta Arnegiren arteko mugak behin baino gehiagotan aldatu direlako, gehienetan Luzaideko udalerriaren luze-laburraren eta heinaren kalterako.

Agiriak miaturik, ikusten dugu *arburu* elea franko errepikatzen dela han eta hemen: *Bideederreagua Arburua* dugu 1284an, *Arburuederra* 1288an, *Arburu[e] derraga* 1302an (Banka aldean orain), *Mendicoceta Arburua Bereya* 1284an, *Mendicotceta-arburua Beraya* eta *Urdinzaqui-arburua* 1313an (*Mendikuzta* eta *Burdintzai* bizirik daude Luzaiden), *Arburu ariztuy* 1302an (*Arburu* Arnegiko mendi baten izena da egun, J. Camino, 2008: 46), *Jasaracune arburua* 1296an (Ondarrola, Arnegi; orain *Jatsagune* da). Horietaz landara, *Erroy arburua* zegoen Luzaiden 1313an, *Errearburu*, *Errealburu* bihurtua 1787tik, *Errealburu* gaur egun. *Arbúita* eta *Eiluzgaineko Arbúita*, hots, *Arburueta* eta *Hegiluzgaineko Arburueta* ere badauzkagu mugako nafar herrian.

Honek guztiak susmarazten digu —egia erran, susmotik harata doa gure pentsaketa— (*h*)*arburu* hori ez dela egun Luzaiden ibiltzen den *peña* errateko galdutako euskarazko hitza besterik. Erran bezala, aipatu aurkintza horietan guztietan badira harriak, haitzak, eta, gainera, *peña*-ren eta *harburu*-ren arteko zubitzat Satrustegik (1969-1970: 145) bildu zuen Luzaideko *Peñaburu* toponimoa ekar daiteke hona. Arruazuarrak (1969-1970: 46) *Arbandi gaina* edo *Arbandi gaina* ere ukan zuen, etorkiz iduri duenez \**Arburuandigaina* dena.

Honekin bukatzeko bi ohar egin nahi nituzke: a) EHn OEHN jasotzen den lehen *harburu* baizik ez da ageri, arkitekturarekin zerikusia duena, ez Toribio

<sup>3</sup> Hizkuntzalari alemanari ez diogu erran ez duenik bizkarreratu nahi, Luzaideko toponimoa eta izen arrunta, biak, elkartuak baitira eta Grassmannek beste zerbait adierazi nahi baitzuen, oker ez banaiz. Honela dio «Grassmannen legea» izenarekin ezagutzen denak: «If two aspirated consonants occur in the same syllable, or in consecutive syllables, then the first loses its aspiration» (hau bertsio bakundua da, Trask 2000: 142).



Etxebarriak Eibarren bildu zuen *arburu* ‘peñasco’ eta, b) azentuaren bilakara aztertzeke tenorean Luzaideko *Arbánta* interesgarria dela nabarmendu nahi nuke, oinarrian *Harburuá(u)ndieta* dagoela irudi baitu; erka bedi *Gainekóleta*-tik irten den *Ganikólta*-rekin eta *Lézeta*-tik irten den *Lézta*-rekin, herri berean.

Egindako ikerketatik ateratzen diren datuek ardura gauzak xuxen nola diren argitzen digute, fonologiatik lekora ere. Morfologiaren eremuan, gorago *Ardachabidea*-n *Ardatza bidea* genuela azaldu dugu, hots, adlatiboaren hondarkia, toki izen bereziekin, *-a* zela, ez *-era*. Gauza berbera erakusten digu Arakilen dokumentatzen den 1724ko *Echarrenabidea* hodonimoak (Jimeno zuz. 1993: 207), egun *Etxarrena bidea* idatziko genukeenak, hau da, Egjarretatik aldamenen den Etxarren herrira zihoan bidea izendatzen zuenak. Hemen ere, ikusten den eran, *-a* hutsa eransten zitzaion oinarriari, ez *-era*.

Aspaldiko datua izanagatik, Zufian XIII. mendean lekukotzen den *Orti Çufico* antroponimoak (García Larragueta 1957: 123) garbi uzten du, zalantza-artekarik batere gabe, Allingo herriaren izenaren bukaerako *-a* jantzi-erantzikoa zela, artikulua alegia, *Zufia* berez ondoko *Zubielki*-n daukagun *zubi* izen arrunta eta *-a* artikulua besterik ez baita, eskualde honetatik Araba aldera gauzatu zen, edo, zehazkiago, Araba aldean burutu eta honaino iritsi zen  $V\beta V > VfV$  aldakuntza ohikoaren erakusgarri bikaina (ikus Mitxelena 1977: 263, Salaberrri 1998a: 55-56 eta 2015: 300, 397-398, 403). Hortaz, datu bakarra izanda ere, aski argia da, eta arautzean *Zufia -a* eman behar dela frogatzen du, dudarako zirrikiturik ttipiena utzi gabe.

Morfologiaren mailakoa da, halaber, fonologiarekin esteka zuzena edukirik ere, *Semera Erassungo*, *Dota Obanosco*, *Domeca Navazco*, *Garcia Eulzco* eta *Lope Osozco* (XIII. m., García Larragueta 1957: 112, 113, 118, 123, 384) antroponimoek ematen diguten informazioa, kontsonante ondoan, izen berezietan, *-e*-rik ez zela sartzen erakusten duena. Hau, egun, aintzat hartu behar genuke arauak emateko garaian, erabilera finkatzeko denboran, orain irudi baitu holakoetan beti *e* tartekatu behar dela, Nafarroa gehieneko erabilera tradiziokoa oraino *Alkozko*, *Baztango*, *Eratsungo*, *Iraizozko*, *Muskizko*, *Obanosko*, *Osozko*... izan arren. Honetaz aspaldixko mintzatu zen Mitxelena, behin baino gehiagotan (1969: 40, 1983: 451).

Toponimia nagusia eta mikrotoponimia ukitu ditut. Orain hain aberatsa eta interesgarria den oikonimiara joko dut. Arlo honetan ere, etxe izenak arautu nahi direnean ikerketa egitea, artxibategietako eta ahozko datuak biltzea hil ala bizikoa izaten da, baitezpadakoa, zangoa barren-barreneraino sartu nahi ez bada bederik. Goizuetako bi adibide aipatuko ditut (Perurena, Salaberrri eta Zubiri 2011: 112, 132 eta 138-139): *Jandene* eta *Maingene* etxe izenak. Ikusten den eran, biek *-ene* dute amaieran, dudarik gabe *-enea* bukaera ezagun luzeagotik ateratzen den forma. Oinarriari doakionez, beste daturik ez bageneuka pentsa genezake

lehenean menturaz *Juan* dugula, baina zaila litzaziguke tarteko *-d(e)-* hori zer den igartztea, eta bigarreanean<sup>4</sup> beharbada *maingu* ‘herrena’ dugula, edo, Goizuetako bereko elea ibiliz, ‘urguna’ dagoela, hots, hastean ‘mainguaeren etxea’ zatekeela.

Baina, handik edo hemendik ikertzeko denbora erdiets bageneza, ikus genezake lehena 1633an *Juan de Aranorena* dela, eta bigarrenaren oinetxea zen Karrrikako etxea (*Maingene* deizioak egun baserriaren izenean baizik ez du iraun) *Marijoangorena* zela XVII. gizaldian zehar. Alegia, lehenean *Juan* (*[j]wan* ebakia, Goizuetan ondareko hitz gehienetan ohikoa den soinu palatalarekin: *jabe, jai, jaiio, jakin, jan, jeki* ‘jaiki’, *jetsi* ‘jaitsi’, *jo, jokatu, jon* ‘joan’ eta beste; ikus Zubiri eta Perurena 1998: 47-48) ponte izena, erdarazko *de* preposizioa eta Goizueta ondoko *Arano* herriaren izena genituela, etxea goratu zuena, seguruenik, herri horretakoa zelako edo haren arbasoren bat handik heldu zelako. Bigarreanean, berriz, *Mari(a)joango* hipokoristikoa dugu, gaztelaniaz *Juanita* erran genezakeena, eta bietan genitiboaren hondarkia eta *-a* artikulua, usaian bezala.

Hortaz, erran dezakegu ikerketaren behar eta premia gorria eguzkiaren argia baino argiago ageri dela herri bateko etxe izenak arautu nahi ditugunean. Gero, egia da, arautzaile-ikertzaileak edo ikertzaile-arautzaileak aldaera zahar osoa eta egungo aldaera eboluzionatua nola bateratu pentsatu beharko du. Goizuetako oikonimoaz den bezainbatez, jendeak *Jandene* eta *Maingene* erraten jarraituko du, eta ongi dago, baina *Juandearanonea* eta *Marijuangonea* aldaera osoagoek, etorkizko *-arena*-dun haietara itzultzea darabiltzagun irizpideen arabera ez baita egokia, udalaren paperetan izan dezakete leku, administrazio gaietan, hain modan dagoen etxeen aitzinaldeko idazki dotore zenbaitetan, edo bietan. Hau da, guk araututzat ematen dugun formari tokitxoren bat bilatu beharko diogu edo zaio, aldaera eboluzionatuak ohikoak baitira eguneroko hizkeran eta ez baitute toki edo laguntzaren beharrik.

Ez dugu denborarik onomastikaren beste arloetako beste etsenplu batzuk ikusteko. Bakarrik erranen dut ponte izenen arloa ere biziki garrantzizkoa dela, eta honetan hartzen diren erabakiek, ardura, eragin handia dutela gizartean. Adibidez, ez da gauza bera *Haizea, Haritz, Harkaitz, Oihan, Oihana* eta *Oihane* *h*-rekin edo *h*-rik gabe idaztea, edo *Jokin, Jone, Josune* eta beste jotarekin, *i* latinoarekin edo grekoarekin izkiriartzea. Hauek, egia erran, afera grafiko hutsak dira, baina ponte izenak gure hizkuntza batuaren oldarrarekin bat etor daitezke edo hartatik hastan eta aldara daitezke, nola idazten ditugun. Eta hau axola duen gaia da, norbaitek lehen soan ikus ez baleza ere.

Bestalde, luzaz izan diren generoaren gaineko arazoak bentzutuxe daudela irudi luke. Hauetan ikerketa ez da menturaz erabakigarriena, lekuetan, naturan

<sup>4</sup> Karrrikako etxeen eta bazterretxe-borden arteko loturaz ikus orain Perurenak (2019: 23) Leitzarako dakarren testigantza.

eta eguraldi kontuetan iturri duten ponte izenen kasuan (*Amaiur, Euri, Haize vs Haizea, Oihan vs Oihana...*), baina bai izen ttipiengan, eta zer erranik ez deituren munduan sartzen garenean, patronimikoetarik haste. Hauetaz kestione, bururatzen zaizkidan galdeitza batzuk hauek dira: zein da euskal aldaera?, bukaeran afrikatua behar dute nahitaez, edo aski da, aitzineko bokala aldaturik, igurzkaria ematea?, eta txistukariaren aurreko bokala baitezpada aldatu beharra dago «euskal» patronimikoa izan dadin?, Euskal Herriko eremu guztietan forma berak erabili dira gure hizkuntzan?

Galderak anitz dira, arazoak ugariak direlako, eta erantzun egokia emateko lehen-lehenik ikerketa sakona behar da, nahiz eta gero, beste askotan bezala, ikerketa hutsak arazo guztiak ez dizkigun konponduko. Onomastikariak, erraterako, galdera hauek egiten ahal dizkio bere buruari: zer lotura egon behar du toki izen batean oinarritu deituraren eta toki izenaren beraren artean?, hots, eta adibidez, nola arautu behar dugu *Lazcano* abizena? Aski da *Lazkano* ematea edo *Lazkao*-raino joan behar dugu? Eta *Irazoqui* nola euskaratzen da? Nahikoa da *Irazoki* ematea edo baserri izenak duen afrikatua ere berreskuratu behar dugu, hau da, *Iratzoki* hobetsi behar dugu? Eta zer agitzen da *Jorajuria*-rekin? Azentu grafikoa kentzearekin arranjatzen da arazoa edo deituraren erroan dauden etxeen izenen forma hautetsi behar dugu, *Xoraxuria* alegia? Eta zenbaitek hainbestetan idazten ditugun *Jimeno Jurio* abizenak ongi emanak daude hola?

Eta bibliografietan, egileek berek ibiltzen dituzten formak begiratu behar ditugu edo euskal era egokian eman behar ditugu? Hilak diren edo bizirik dauden ikusi behar dugu edo ez? Eta nola izkiriatu gure klasikoen deiturak? Erraterako, *Axular* zuzena da edo *Atsular* idatzi behar genuke?, eta *Betolaza* eta *Kardaberaz* ala *Betolatza* eta *Kardaberatz*?, eta hasierako bokala galdutako *Recalde*, *Recondo*, *Roteta* eta besterekin zer egin? Eta *Múgica* nola idatzi behar dugu?, *Mujika* ala *Muxika*? Eta, erabakia hartuz gero, egileari deitura zuzenduko diogu adibidez *Euskeran* artikuluren bat argitaratu nahi badu, edo ez? Erran nahi dut, norbaitek *bizitu zen* idazten duenean *bizi izan zen* zuzentzen badiogu, Euskaltzaindian beste norbaitek aditzak *bizi izan* izan behar duela erabaki duelako, nahiz Mikelestorenak, Elkanoko Lizarragak, Mendiburuk, Kardaberatzek, Iztuetak, Larrekok, Mitxelenak eta bestek *bizitu zen* erabili duten, eta nahiz egun forma hori, Nafarroan segurik, ardurakoa den, beste zenbaitek darabiltzaten *Rekondo* edo *Jurio* deiturak *Errekondo* eta *Xurio* bilakatuko ditugu ezinbestean? Hau da, norbaitek hola idazten ez baditu lana atzera botako diogu? Maila banatoko erabakiak dira hiztegikoak eta onomastikakoak, edo maila berekoak?

Erran moduan galderak hamaika dira, eta maiz arrapostua ez da agerikoa, onomastikan aritzen garenok ongi dakigun moduan, baina badakigu orobat ikertzea, gauzak nola izan diren eta diren, eta hola zergatik izan diren eta diren jakitea biziki garrantzitsua dela, deus egin baino lehen gaia aztertu behar dela,

eta horretarako baliabideak behar direla, langileak eta denbora. Bestalde, lanak ezin ditugu tarrapatu egin, aire mila demonio, bestela lehengo huts berberak errepikatuko ditugulako. Eta gure atzera-aurrera ezagututa horren arriskua bada.

Honaino nire hitzak. Galderak gehiago izan dira erantzunak baino. Nolanahiko gisan, arauketan ikerketa oinarritzkoa dela argi gelditu dela uste dut, eta horixe zen nire xedea.

### ERREFERENTZIAK

- BELASKO, Mikel (1996): *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra, Apellidos navarros*. Iruñea: Pamiela. Bigarren edizioa 1999koa da.
- CAMINO, Joseph (2008): *Herria maitez, Eliza maitez*. Getaria Lapurdi.
- DASSANCE, Louis (1966): “Herrien eta herritarren izenak euskaraz”, *Gure Herria*, 38, 159-168.
- EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua/Euskaltzaindia.
- GARCÍA LARRAGUETA, Santos (1957): *El Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.
- JIMENO, José María (zuz.) (1993): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra. Arakil — Irurtzun — Itza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- KAMINO, Peio; SALABERRI, Patxi (egiten ari). *Luzaideko leku izenak*.
- MITXELENA, Koldo (1969): “Notas lingüísticas a ‘Colección diplomática de Irache’”, *FLV*, 1, 1-59.
- (1977): *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Julio Urkixo mintegiaren argitalpenak, Gipuzkoako Aldundia, bigarren argitaraldia.
- (1983): “Iruñea”, in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, *Iker* 2, 445-451.
- MÚGICA, Matías; MENDOZA, José Luis (1993): “De toponimia Navarra. Sobre el *Nomenclátor Euskérico de Navarra*. Aspectos filológicos y sociológicos”, *ASJU*, 27, 551-574.
- ONOMASTIKA BATZORDEA (1997): “Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak”, *Euskera*, 42 (3), 653-666.
- PERURENA, Patziku (2019): *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)*. Iruñea: Pamiela.
- PERURENA, Patziku; SALABERRI, Patxi; ZUBIRI, Juan Jose (2011): *Goizuetako etxeen izenak*. Iruñea: Pamiela.
- SALABERRI, Patxi (1995): “Nafarroako herri-izenen inguruan”, *ASJU*, 29.2-3, 559-580.
- (1998a): “Criterios para la normalización de la toponimia mayor de Navarra”, *FLV*, 79 (1998) 363-376.
- (1998b): “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, in I. Camino (arg.), *Nafarroako Hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak. Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 49-87.

- (2015): *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Gasteiz: Euskaltzaindia - Arabako Foru Aldundia, *Izenak* 5.
- SATRUSTEGI, Jose Mari (1969-1970): “Toponimia de Valcarlos”, *Anuario de Eusko-Folklore*, 13, 129-158.
- TRASK, Robert Lawrence (2000): *The Dictionary of Historical and Comparative Linguistics*. Chicago/London: Fitzroy Dearborn Publishers.
- ZUBIRI, Juan Jose; PERURENA, Patziku (1998): *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Lasarte-Oria: Nafarroako Gobernu.

**III**

**LINGUISTIKA APLIKATUA ETA EUSKAL ONOMASTIKA:  
EUSKALTZAINDIAREN EKARPENA**

**LINGÜÍSTICA APLICADA Y ONOMÁSTICA VASCA:  
APORTACIÓN DE LA REAL ACADEMIA  
DE LA LENGUA VASCA**

**LINGUISTIQUE APPLIQUÉE ET TOPONYMIE:  
CONTRIBUTION DE L'ACADÉMIE  
DE LA LANGUE BASQUE**

**BASQUE APPLIED LINGUISTICS AND ONOMASTICS:  
CONTRIBUTION OF THE ROYAL ACADEMY  
OF THE BASQUE LANGUAGE**



IZENAK BILDUMA

## KALE ETA KARRIKEN IZENAK HAUTATZEKO ETA IDAZTEKO IRIZPIDEAK

Euskal odonimiako eskuliburua



Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (pertsoneko izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen da Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten.

Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.



**KALE ETA KARRIKEN IZENAK  
HAUTATZEKO ETA IDAZTEKO  
IRIZPIDEAK  
EUSKAL ODONIMIAKO ESKULIBURUA**

ALFONTSO MUJICA  
a.mujika@elhuyar.eus

*Kale eta karriken izenak hautatzeko eta idazteko irizpideak* izena duen liburuxka, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak prestatu du Euskaltzaindiaren 100. urteurrenaren kariatz.

*Euskal odonimiako eskuliburua* du azpiizenburu. Helburua, izan ere, eskuliburu labur eta ulergarri bat egitea izan da, gaiari buruz interesa duen edonork ulertzeko modukoa.

**ODONIMOAK ETA ODOMIMIA**

Kale- eta karrika-izenak eta kidekoak —bide, plaza, errepide, pasealeku eta abarren izenak— adierazteko hitza da **odonimoa**. Eta toki bateko leku-izenen multzoa toki horretako toponimia den bezala, herri edo hiri bateko kale eta kidekoen izenen multzoari **odonimia** deritzo. Hiri-toponimiaren parte garrantzitsua dira odonimoak: hiri-toponimia, odonimoez gainera, auzo, urbanizazio, industrialde eta hiriko gainerako arkitektura-elementuen izenez osatzen da.

Izen geografikoen multzoaren barnean, odonimia da herritarrengandik gertuen dagoen azpimultzoa: herritarren lantokia, aisia-tokiak eta gainerako



zerbitzuetarako tokiak kokatzeko erabiltzen ditugu odonimoak, eta, batez ere, etxebizitza kokatzeko. Nonahi ageri dira odonimoak gizakion eguneroko jardueretan.

### ZER DAGO ESKULIBURU HONEN ATZEAN?

Eskuliburua ez da gauek goizera sortu, badu soka luze bat. Mende-laurden inguru darama Euskaltzaindiak, Onomastika batzordearen bidez, kale- edo karrika-izenei buruzko irizpenak ematen eta handik eta hemendik iristen zaizkion kontsulta eta eskariei erantzuten. Eta gehiago ere bai, duela ia ehun urte —1922an— eman baitzuen kale-izen batzuei buruzko lehen irizpena. Izan ere, honela dio Euskaltzaindiaren 1922ko bilera-agiri batek<sup>1</sup>:

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1922'ko Lotazila'ren 28'an.

Bergara'ko Udalak Euskaltzaindiari eskari bat egiten dio. Iru kalei izen berriak ezafi nai dizkio ta jakin gura leuke, zelan esan euskeraz: *Calle de don Pedro de Irizar, de D. Ramon María de Lili y de D. Luis de Eleizalde*. Euskaltzañak abo batez desate: Abizen oiek bakar idatzi bear dirala, atzetik *Kale* jañi-ta, onela: *Irizar-Kalea, Lili-Kalea, Eleizalde-Kalea*.

Urte horietan guztietan, Euskal Herri osoko dozenaka udalek jo dute Akademiara zalantzak argitzeko aholku edo iritzi bila, beren proposamenen berrespen bila edo erdaraz jada erabakiak eta finkatuak dituzten karrika-izenen euskal ordainen bila, eta Onomastika batzordeak beti erantzun die, bere ahalen neurrian. Batzuetan, informazio osagarri ona helarazten diote udalek batzordeari, eta, halakoetan, errazagoa da erantzun egokia eta zehatza ematea; beste batzuetan, informazio osagarria falta izaten da, eta batzordeak bilatu behar izaten du, han eta hemen informazioa eskatuz eta bilduz, modu egokian erantzungo badu.

Hutsaren hurrengotik abiatuta eta praktikatik ikasiz eratu behar izan zituen batzordeak irizpideak, iristen zitzaizkion eskaerei erantzun koherentea ematearren, eta ez da ahaztu behar duela ia hiru hamarkada ez zituela batzordeak orain eskura dituen baliabideak eta euskararen estandarizazioa ere ez zegoela orain erdietsi duen mailan. Egoera hartan landu ziren karrika-izenetarako irizpideak 1990eko hamarkadaren bigarren erdian. Onomastika batzordeko Patxi Salaberri eta Mikel Gorrotxategi izan ziren prestatzaileak, eta 1998ko abenduaren

<sup>1</sup> <<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/52913.pdf>>.

12an onartu zituen Onomastika batzordeak. Hurrengo urtean argitaratu ziren *Euskera* agerkarian<sup>2</sup>.

Hamar urte geroago, 2008an, irizpide horietan puntu batzuk zehaztuz eta kale-izenen inguruko beste alderdi batzuk landuz, dokumentu bat argitaratu zuen Mikel Gorrotxategi batzordekideak *Euskera* agerkarian<sup>3</sup>. Karrika-izenak eratzeko irizpideez gainera, izenak hautatzeko zenbait irizpide orokor ere deskribatu ziren dokumentuan.

Geroztik, karrika-izenei buruzko irizpenak ematen jarraitu du Onomastika batzordeak. Hala, azken 20 urteetan 6.000 karrika-izen baino gehiago aztertu dira Euskaltzaindiaren Onomastika batzordean eta Onomastika Zerbitzuan. Karrika-izen gehiago aztertu ahala, lehenago aurkitu gabeko edo hain zehazki deskribatu gabeko karrika-izen motak agertu dira, edo lehenago agertu gabeko izen eta izendapen bereziak aurkitu ditu batzordeak, eta irizpideak zorrotzu behar izan ditu. Bestalde, azken hamar urteak aski emankorrak izan dira euskararen estandarizazioan eta leku-izenen dokumentazioan, eta zeharka nahiz zuzen karrika-izenen arloan eragiten duten arau, hobespen eta datu berri ugari plazaratu dira. Ez da ahaztu behar irizpideen azken bertsioa argitaratu zenetik gaur egun arte ia 50 arau eman dituela Euskaltzaindiak, haietako asko Euskal Herrikan kanpoko leku eta pertsonen izenei buruz, baina baita Euskal Herriko toponimoei buruz ere. Eta, bestalde, kontuan hartu beharrekoa da *Euskaltzaindiaren Hiztegia* argitaratu zela 2012an eta geroztik etengabe handitzen eta osatzen ari dela.

Horregatik, euskara batuak 50 urte bete berri dituela eta Euskaltzaindiak aurten 100 betetzen dituela ere ahaztu gabe, azken urteotan metatutako eskarmentua baliaturik, karrika-izenetarako emandako irizpideak eguneratzeko, osatzeko, doitzeko eta xeheago deskribatuta berridazteko lana hartu du Onomastika batzordeak, eta beste modu batera sistematizatu eta aurkeztu nahi izan ditu. Argitaratu berri den liburu hau da lan horien guztien emaitza.

Datuak biltzea eta sailkatzea izan da lehen urratsa. Horretarako, azken 20 urteetan batzordeak landu dituen Euskal Herri osoko 6.000 kale-izen baino gehiago aztertu dira, berariaz antolatutako datu-base bat erabilia.

<sup>2</sup> “Hiri-izendegia: irizpideak eta erabiltzeko arauak”, *Euskera*, 44 (1999), <<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49349.pdf>>

<sup>3</sup> “Kale izendegiak. Izenak hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko arauak”, *Euskera*, 53 (2008), <<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/73244.pdf>>.

## 1. Irudia: Datu-baseko fitxa bat

**ODONIMO FITXA**  
Euskaltzaindia. Onomastika batzardea

leku-kodea: 6329

euskal izena: Sorhoeta karrika itsua non: 6.2.00.19 Ostankoa txostena

erdal izena: Impasse Sorhoeta auzoa: iragazi denak

bertsio elebiduna:

espezifikotza mota: L1 leku-izena azalpena iragazi denak zerrenda zer: 39 kale itsua iragazi denak  
txostena Leku, bertakoa edo ingurukoa dirudiena, jatorrizkoa edo itzulia iragazi denak euskal generikoa: karrika itsua erdal generikoa:

euskal izen ofiziala: euskal proposamena: Sorhoetako karrika itsua

erdal izen ofiziala: erdal proposamena: Impasse Sorhoeta

iturria: 58 2018 058\_Ostankoa\_bideak\_2018.pdf esteka

oharrak: sorhoeta (ORP) ; Sorhouet (1764); sorhouet (1826); sorhouet (1970); sorhoueta (2004) IGN. Ahoz: Sorhueta.

iragazi denak irten

Registro: 14 6322 de 6326 Sin filtrar Buscar

Datu-base hori ustiatuz, sistematikoki berraztertu dira irizpideak, eta ikusi da bazirela behar bezain zehatz deskribatu gabeko kale-izen mota batzuk, bai eta deskribatu gabeko beste kale-izen mota gutxi batzuk ere. Irizpideak zorroztu beharra izan da azterlan horren ondorioa. Eta langintza horri lotu zitzaion batzardea: kale-izenetarako 2008an emandako irizpideak eguneratu, osatu eta xeheago deskribatuta berridazteari ekin zion.

Beste urrats bat gehiago ere egin da: irizpideak plazaratu nahi zituen Euskaltzaindiak, interesa edo jakin-mina duten guztien esku jartzeko, eta aha-lerin berezi bat egin da irizpide horiek modu didaktikoan azaltzeko. Horregatik, odonimoen tipologia erabili da ardatz gisa irizpideak taxutzeko. Hau da, odonimoak zer islatzen duen hartu da kontuan sailkatzeko eta irizpideak emateko: leku baten izena den, pertsona batena, erakunde batena, artelan batena, edo izen konkretu bat den, izen abstraktu bat den eta abar. Sailetan eta azpisailetan banatuta aurkezten dira odonimo-motak, eta haietako bakoitza idazteko irizpidea eskaintzen. Eta, didaktizazioa helburu, adibideak ematen dira etengabe. Hori da, preseski, lanaren beste ezaugarri nabarmen bat: adibide-kopurua. Izan ere, 45 bat orrialde baino ez ditu eskuliburuak, baina 500 adibidetik gora ematen ditu.

### HIZKUNTZA-IRIZPIDEEZ HARAGO: KALE-IZENAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Eskuliburuak ez da hizkuntza-irizpideetara mugatzen. Udalen esku dago zer izen eman kale berriei, eta alkateek eta zinegotziek erabaki ohi dituzte izenak, dela zuzenean, dela eraikitzaileen proposamenak jaso ondoren, dela herritarrei

iritzia eskatuta. Euskaltzaindiaren eginkizuna ez da, noski, udal-ordezkariei esatea zer izen jarri behar dieten kale berriei, baina, hizkuntza-irizpideak emateaz gainera, Akademiari komenigarria iruditu zaio kale eta kidekoei izenak emateko zenbait iradokizun orokor ere biltzea, gaiari heldu behar edo heldu nahi dionari jakingarri gertatuko zaizkiolakoan (besteak beste, horrexegatik argitaratu da gaztelaniaz eta frantsesez ere). Edozein hizkuntzarentzat balio duten iradokizunak dira, eta ez dira Euskaltzaindiak berariaz eginak; Nazio Batuetako Izen Geografikoen Aditu Taldeak emandakoak dira, eta han-hemen bildutako beste zenbait gomendio ere jaso dira.

Hala, adibidez, kale eta plaza berriei izena emateko orduan, izen hutsalak edo modakoak baztertu eta tokian tokiko toponimo jatorrak lehenestea gomendatzen da, tokian tokiko pertsonak gero —genero-berdintasuna zainduta—, eta tokian tokiko jarduera edo tradizioekin erlazionatutako terminoak azkenik, toki bakoitzeko kulturaren eta historiaren erakusgarri diren aldetik.

Halaber gomendatzen da kaleak ez izendatzea bizirik dauden pertsonen gومتاز, nazioartean esperientziak erakutsi baitu jardunbide hori kaltegarria izan daitekeela, gatazka-iturri gertatu eta gerora izen-aldaketak eragin baititzake.

#### IRIZPIDE ORTOTIPOGRAFIKOAK FINKATZEA

Hizkuntza-irizpideei heldu aurretik, kale-izenetan letra larriak nola erabili behar diren deskribatzen da eskuliburuan. Horretarako, odonimoaren *atal espezifikoa* eta *atal generikoa* definitzen dira, eta haiak hartzen dira oinarritzat irizpidea eraikitzeke. Adibidez, *Deba ibaia* leku-izena idazten dugunean, letra xehez idazten dugu toponimoaren parte generikoa —*ibaia*—; hala ere, kontuan izan behar dugu ezen, toponimo hori kale baten izena denean, toponimoa osatzen duten bi hitzak direla odonimoaren atal espezifikoa eta, horrenbestez, letra larriz hasita idatzi behar dugula *ibai* hitza ere: *Deba Ibaiaren kalea*.

#### HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Lehen begiratu batean, pentsa liteke odonimoaren egitura zehaztea dela zalantza bakarra, hau da, erabakitzea nola lotuko diren odonimoaren atal generikoa (*kalea, plaza, bidea...*) eta espezifikoa (*Deba Ibaia, Anboto, Hazparne, Madame Curie, Antso Azkarra, Independentzia, Harakinak, Geltokia, Frantziskotarrak, Martxoaren Zortzia...*): aposizioa erabiliko den (*Anboto kalea*), edutezko genitiboa (*Deba Ibaiaren kalea*) edo leku-genitiboa erabiliko den (*Hazparneko errepidea*), izen-elkarketa erabiliko den (*Harakin kalea*) edo izenondoa erabiliko den (*Kale Nagusia*).

Bada, ordea, zer aztertutrik azken urrats horretara iritsi aurretik. Adibidez, kale-izenaren atal espezifikoak leku-izena bada, kontuan hartu behar da euskal toponimoa den ala ez, eta, baiezkoan, zer grafia dagokion. Horretarako, non eta leku-izena ez den jada arautua dagoen bat (*Baiona, Nafarroa, Urizaharra*), aintzakotzat hartu behar dira toponimia txikia arautzeko irizpide zehatzak. Bestalde, leku-izena Euskal Herrikoa bada baina erdal toponimoa bada, erdal grafiaz idatzi behar da (*Orconera plaza, Vinhèrko bidea*), eta, Euskal Herriaz kanpokoa bada, kontuan hartu behar da euskal forma arautua duen ala ez (*Flandria kalea* baina *Yamaguchi parkea*).

Edo, adibidez, kale-izenaren atal espezifikoak pertsona-izena denean, nola idatzi Euskal Herriko pertsonen izenak? Noiz erabili behar da euskal grafia eta noiz erdal grafia Euskal Herriko pertsonen euskal deituretan? Euskal abizenak euskal grafiaz idatzi behar dira beti? Lehengo pertsonenak bai, berdin diola noizkoak diren? Eta gaur egungo pertsonenak? Zalantzarik gabe, kale-izenen esparrutik haragoko galdera orokorrak dira.

Galdera horiei, eta beste askori, erantzuten saiatzen da eskuliburua, arazoei helduz eta argibidea ematen saiatuz.

#### EUSKALTZAINDIA, LAGUNTZEKO PREST

Urte hauetan guztietan metatu duen esperientzia partekatzea eta herritarren esku jartzea da Euskaltzaindiaren helburua eta nahia. Horregatik plazaratu du eskuliburu hau —euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez argitaratua—, eta dei egingen die herritarrei, herritarren ordezkariari —alkateak, auzapezak, zinegotziak— eta udal-langile zein euskara-teknikariari Euskaltzaindira jo dezaten kale, karrika eta kidekoen izenen arloko zalantzak argitzera eta irizpen edo aholku eske.

## ***EUSKAL ONOMASTIKAREN DATUTEGI (EODA)*** **BERRITUAREN AURKEZPENA**

PATXI GALÉ  
Onomastika batzordea  
pgale@euskaltzaindia.eus

### ***EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA (ECO) ETA EUSKAL ONOMASTIKAREN DATUTEGIA (EODA)***

Liburu honetako beste kapitulu batean azaldu dugu *ECO* egitasmoaren historia eta datutegi horrek *EODAn* duen isla. Oso laburbilduta, esan daiteke *ECO* dela Onomastika batzordeak erabakiak hartzen laguntzeko datutegi bat, informazio onomastikoa jaso eta gordetzeko. Datutegi horretan bildutako informazioaz baliatuz, batzordeak arautze-proposamenak erabakitzen ditu eta berme maila desberdinekin plazaratzen ditu: arauak, irizpenak, erabakiak, argitalpenak... *EODA*, batez ere, erabaki horiek gizarteratzeko tresna da. Euskaltzaindiaren webgunean erakusten den informazio onomastikoa da, beraz, *EODA*. Eta orain arte hor erakutsitako datuak izan dira Euskaltzaindiak nola edo hala ontzat emandakoak.

***EODA* BERRITUA**

*EODA* berrituan, Euskaltzaindiaren datutegi horretan bildutako datu-corpusaren atal handiago bat hedatu nahi da. Oro har, Euskaltzaindiaren onespenu duten erregistroak baino harago, kalitate oneko lanetatik heldu zaizkigun arautze-proposamenak ere plazaratuko dira hemendik aurrera *EOD*Aren bitartez. Datu horiek beste ikertzaile edo ikerketa-talde batzuen ekarpenak dira, ez Euskaltzaindiarenak. Erabiltzaileak adi egon eta erregistro bakoitzaren berme-maila hori zein den ikusi beharko du arretaz, eta erakusten den idazkera hori noraino den segurua ala behin-behinekoa...

*EOD*Aren zabaltze horren ondorioz, hemendik aurrerako kopuruak nabarmen haziko direla bistakoa da:

	Orain arte			Gaurtik aurrera	
	<i>ECO</i>	<i>EODA</i>	%	<i>EODA</i>	%
Izenak	5.000	3.400	73,85	4.700	79,61
Deiturak	12.300	9.600	78,52	9.600	78,52
Lekuak	256.700	7.900	3,11	112.70	43,90


Alde batetik, Euskaltzaindiaren pertsona-izendegia pixka bat hazi da, eta liburu honetako kapitulu batean zehazkiago azaltzen du Paskual Rekalde batzordekideak zertan datzan hazte hori. Baina nabarmenen haziko dena erregistro toponimikoen kopurua da: hemendik aurrera, Euskaltzaindiak berariaz aztertu ez arren, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko toponimo “txiki” asko ere erakutsiko dira *EOD*An. Nolabait esanda, lan horietan egindako arautze-proposamenak, oro har, irizpide egokiekin erabaki zirela uste da, eta bere horretan plazaratzen ditugu. Epe laburrean, beste datu-multzo batzuk ere plazaratzeko moduan egoteko asmoa eta borondatea dago.

## KONTSULTARAKO TRESNAK

The screenshot shows the EODA website interface. At the top, there is a search bar with the text 'Webgune osoan - Idatzi hemen zer bilatu nahi duzun' and a search icon. Below the search bar, there are navigation links: EUSKALTZAINDIA, HIZKUNTZA-BALIABIDEAK, AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA, ARGITALPENAK, and MENDEURRENA. On the left side, there is a sidebar with a search box containing 'Atxabal' and a 'Bilatu' button. Below the search box, there are dropdown menus for 'Euskal Herria' and 'Mundua'. The main content area is titled 'EODA - BILAKETA' and shows 3 results for 'Atxabal'. Each result includes details such as 'Arautzea', 'Altitudea', 'Alonimoo', 'Ofiziala', and 'Gaztelania'. There are also map links for each result. On the right side, there is a section for 'Iragazkiak' with three dropdown menus: 'Non', 'Izaera', and 'Arautze maila'.


Hemendik aurrera Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai egongo den *EOD*Aren diseinuan kontuan izan da, erabiltzaile ohikoentzat ez ezik, interes berezia edo espezializatua izan dezaketen eragileentzat ere eskaini nahi dela zerbitzua. Horretarako, ohiko bilaketa-bideak apailatu dira, grafia desberdinen bidez euskal era arauzkoetara eramango gaituztenak. Kontuan hartu behar da, erregistro gehiagoren gainean bilaketa egiteak, zenbaitetan, erantzun konplexuagoak edo ugariagoak ekar ditzakeela.





EUSKALTZAINDIA  
EUSKAL HERRIEN ELIZKUNDA  
RECHERCHE DE LA LANGUE BASQUE

Webgune osoan ▾
Idatzi hemen zer bilatu nahi duzunQ



EUSKALTZAINDIA ▾
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾
ARGITALPENAK ▾
MEDEURRENA

Bilaketa

Atxabal

Bilatu

Euskal Herria

Araba >  
 Bizkaia >  
 Gipuzkoa >  
 Nafarroa >  
 Lapurdi >  
 Nafarroa Beherea >  
 Zuberoa >

Mundua

Afrika >  
 Amerika >  
 Antartika >  
 Asia >  
 Europa >  
 Ozeania >

## EODA - BILAKETA

3 emaitza *Atxabal* bilaketarentzat [1 - 3]

Atxabal (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 888  
**Alonimoa:** Oro  
**Ofiziala:** Atxabal / Oro  
**Gaztelania:** Achabal, Peñas de Oro  
**Non:** Zuia  

[Google Maps](#) [OpenStreetMap](#) [iberpix](#)

Atxabal (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 692  
**Alonimoa:** Txarabeltz  
**Ofiziala:** Atxabal, Txarabeltz  
**Non:** Beasain  

[Google Maps](#) [OpenStreetMap](#) [iberpix](#)

Artxabal (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 1168  
**Ofiziala:** Artxabal  
**Non:** Errioxa, Urizaharra  

[Google Maps](#) [OpenStreetMap](#) [iberpix](#)

Iragazkiak

Non ▾

Izaera ▾

Arautze maila ▾

Bilatutako edozein erregistrotara helduta, erakutsiko zaigun lehen informazioa orain artekoaren antzekoa izango da: euskarazko aldaera arauzkoa, zer den (izena, deitura, tokia...), haren gaineko informazio osagarria (sexua —epizenoa barne—, kokapena, izaera geografikoa, izenaren aldaerak...), eta halakoak.

Euskal-onomastika.indb 180

25/11/2020 15:12:43

EUSKALTZAINDIA

Webgune osoan

EUSKALTZAINDIA
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA
ARGITALPENAK
MENDEURRENA

---

Bilaketa

Aretxabaleta

Bilatu

Euskal Herria

Araba >

Bizkaia >

Gipuzkoa >

Nafarroa >

Lapurdi >

Nafarroa Beherea >

Zuberoa >

Mundua

Afrika >

Amerika >

Antartika >

Asia >

Europa >

Ozeania >

## EODA - BILAKETA

3 emaitza *Aretxabaleta* bilaketarentzat [1 - 3]

**Aretxabaleta** (Udalerría)

**Arautzea:** Euskaltzaindiaren araua

**Herritarra:** aretxabaletar

**Ofiziala:** Aretxabaleta

**Gaztelania:** Término municipal de Aretxabaleta

**Non:** Debagoiena

**Dokumentuak:**

> [140. araua: Gipuzkoako herri izendegia \(2004\)](#)

Google Maps
OpenStreetMap
Iberpix

Iragazkiak

Non

Izaera

Arautze maila

---

**Aretxabaleta** (Kontzeilua, lekua)

**Arautzea:** batzordearen argitalpena

**Altitudua:** 554

**Osatua:** Aretxabaleta Gasteiz

**Ofiziala:** Aretxabaleta

**Non:** Gasteiz

Google Maps
OpenStreetMap
Iberpix

---

**Aretxabaleta** (Hiria, udalerriko auzo nagusia)

**Arautzea:** Euskaltzaindiaren araua

**Herritarra:** aretxabaletar

**Ofiziala:** Aretxabaleta

**Non:** Aretxabaleta

**Dokumentuak:**

> [140. araua: Gipuzkoako herri izendegia \(2004\)](#)

Google Maps
OpenStreetMap
Iberpix

^

Esan bezala, erregistro bakoitzarekin batera aditzera emango da zein den usteko idazkera edo aldaera horren “arautze-bermea”. Izan ere, lehendik zeuden erregistroekin batera “Euskaltzaindiaren araua”, “Onomastika batzordearen irizpena” edo halako arautze-maila dutela adieraziko da. Orain gehitu diren erregistro berri ugari horietan “ikertzaile baten arautze proposamena” direla agertuko da.

Euskal-onomastika.indb 181

25/11/2020 15:12:44

EUSKALZAINDIA  
EUSKALZAINDIAREN ARUA

Webgune osoan - Idatziz hemen zer bilatu nahi duzun

EUSKALZAINDIA - HIZKUNTZA-BALIABIDEAK - AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA

**Bilaketa**

Aretxabaleta

Bilatu

**Euskal Herria**

Araba >  
Bizkaia >  
Gipuzkoa >  
Nafarroa >  
Lapuri >  
Nafarroa Beherea >  
Zuberoa >

**Mundua**

Afrika >  
Amerika >  
Antartika >  
Asia >  
Europa >  
Ozeania >

**EODA - BILAKETA**

3 emaitza Aretxabaleta bilaketarentzat [1 - 3]

**Aretxabaleta** (Udalerrria)

**Arautzea:** Euskaltzaindiaren araua  
**Herritarra:** aretxabaletar  
**Ofiziala:** aretxabaleta  
**Gaztelania:** Término municipal de Aretxabaleta  
**Non:** **Debagoiena**  
**Dokumentuak:**  
140. araua: Gipuzkoako herri izendegia (2004)

**Aretxabaleta** (Kontzejua, lekua)

**Arautzea:** batzordearen argitalpena  
**Altitudea:** 554  
**Osatua:** Aretxabaleta Gasteiz  
**Ofiziala:** Aretxabaleta  
**Non:** **Gasteiz**  
Google Maps | OpenStreetMap | Iberpix


**Aretxabaleta** (Hiria, udalerriko auzo nagusia)

**Arautzea:** Euskaltzaindiaren araua  
**Herritarra:** aretxabaletar  
**Ofiziala:** Aretxabaleta  
**Non:** **Aretxabaleta**  
**Dokumentuak:**  
140. araua: Gipuzkoako herri izendegia (2004)  
Google Maps | OpenStreetMap | Iberpix

**140**  
**GIPUZKOAKO HERRI IZENDEGIA**  
**I) Herrien euskal izena**

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Abaltzisketa	Abaltzisketa	abaltzisketar	Tolosaldea
Aduna	Aduna	adunar	Tolosaldea
Aia	Aia	aiar	Urola Kosta
Aizarnazabal	Aizarnazabal	aizarnazabaldar	Tolosaldea
Albiztur	Albiztur	albizturtar	Tolosaldea
Alegia	Alegia	alegiar	Tolosaldea
Alkiza	Alkiza	alkizar	Goierri
Altzaga	Altzaga	altzagar	Tolosaldea
Altzo	Altzo	altzotar	Tolosaldea
Amezketta	Amezketta	amezketar	Tolosaldea
Andoain	Andoain	andoaindar	Tolosaldea
Anoeta	Anoeta	anoetar	Debagoiena
Antzuola	Antzuola	antzuolar	Goierri
Arama	Arama	aramar	Debagoiena
Aretxabaleta	Aretxabaleta	aretxabaletar	


Erregistro horietatik guztietatik, arauetara nahiz argitaratutako irizpenetara jotzeko esteka ere jarriko da, pdf-ak ikusi edo eskuratu nahi dituenak errazki egin dezan.



**EUSKALTZAINDIA**  
ROYAUME DE LA LANGUE BASQUE  
REINO DE LA LENGUA BASCA

Webgune osoan

Q



EUSKALTZAINDIA
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA
ARGITALPENAK
MEDEURRENA

**Bilaketa** ^

Bilatu

**Euskal Herria** v

- Araba >
- Bizkaia >
- Gipuzkoa >
- Nafarroa >
- Lapuri >
- Nafarroa Beherea >
- Zuberoa >

**Mundua** v

- Afrika >
- Amerika >
- Antartika >
- Asia >
- Europa >
- Ozeania >

## EODA - BILAKETA

3 emaitza *Atxabal* bilaketarentzat [1 - 3]

**Atxabal** (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 888  
**Alonimoa:** Oro  
**Ofiziala:** Atxabal / Oro  
**Gaztelania:** Achabal, Peñas de Oro  
**Non:** **Zuia**

Google Maps
OpenStreetMap
iberpix

**Atxabal** (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 692  
**Alonimoa:** Txarabeltz  
**Ofiziala:** Atxabal, Txarabeltz  
**Non:** **Beasain**

Google Maps
OpenStreetMap
iberpix

**Artxabal** (Mendia)

**Arautzea:** batzordeak ontzat emandako arautze proposamena  
**Altitudea:** 1168  
**Ofiziala:** Artxabal  
**Non:** **Errioxa, Urizaharra**

Google Maps
OpenStreetMap
iberpix

**Iragazkiak**

Esan bezala, erregistro kopurua, zenbaitetan, handiegia izan daiteke. Hori kudeatzeko, iragazki batzuk egiteko aukera eskainiko zaio erabiltzaileari.

EUSKALTZAINDIA Webgune osoan

EUSKALTZAINDIA ▾ HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾ AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾ ARGITALPENAK ▾ MENDEURRENA

**Bilaketa**

**Bilatu**

**Zerrendak**

Emakumezkoen izenen zerrenda >

Gizonezkoen izenen zerrenda >

Izen epizenoen zerrenda >

## MAXIMO - PERTSONA-IZENAK - EODA

**Maximo**

Máximo (gaztelania), Maxime (frantsesa), Maximus (frantsesa), Maximus (ingeleza), Maximianus (ingeleza), Maximus (latina), Μάξιμος (grekoa)

**Sexua:** gizonezkoa      **Arutzeta:** Euskaltzaindiaren araua  
**Hipokoristikoa:** Ez

**Dokumentazioa (25)** [Iruzkinak](#) [Estekak \(3\)](#)

Guztiak (25)    Arutzeta (13)    Ofizialtzea (0)    Hizkuntza azterketa (3)

- antonius maximus - (0043-0120 [1987]) [DRPLV](#), II, 197. or.
- maximo - (1635) [Harb](#), 919
- maximo - (1636) [EZ.Eliç](#), 951
- marci maximi - (1638) [O.NUV](#), II, VII. kap., 135. or. [0652. or.]
- valerius maximus - (1638) [O.NUV](#), passim
- maximum victorin - (1638) [O.NUV](#), III, III. kap., 399. or. [0916. or.]
- maximus - (1638) [O.NUV](#), passim
- maximok - (1664) [SP.Phil](#), 130
- maximok - (1712) [ES.EHast](#), 165
- britanniko maximo - (1992) [DRPLV](#), IV, 313. or. (11. oin oharra)
- germaniko maximo - (1992) [DRPLV](#), IV, 313. or. (11. oin oharra)
- maximo - (1994) [KINT.PI](#), XXXIX (1994, 3), 1382. or.
- maximo - (1997) [ARAUA.076](#), Euskera, XLII (1997, 3), 454. or.
- maximo: máximo (gazt.), maxime (fr.) - (1997) [ARAUA.066](#), Euskera, XLII (1997, 1-2), 92. or.
- valerio maximo - (1997) [ARAUA.076](#), Euskera, XLII (1997, 3), 457. or.
- maximo (giz.): (fr.) maxime - (2001) [GOR.SAL.EIZ](#), 327
- maximo (giz.): (gazt.) máximo - (2001) [GOR.SAL.EIZ](#), 322
- maximo - (2014) [ARAUA.076bis](#), 23. or.
- petronio maximo - (2014) [ARAUA.076bis](#), 26. or.

Erregistro gehiago eskaintzeaz batera, beste berrikuntza garrantzitsu bat dakar *EODA* berriak. Onomastikan interesa duenarentzat edo erabiltzaile espezializatuarentzat pentsatua dago bereziki. Erregistroak berak ez ezik, erregistro horiek ilustratzen, osatzen eta oinarritzen dituzten datu dokumentalak ere egongo dira kontsultagarri webgunearen bitartez, baita, leku-izenen kasuan, ahozko informazioa ere, halakorik baldin badago.

- **Euskararen hastapenak** (38) O.NOV, III, III. kap., 399. or. [0916. or.] +
- ETCHEBERRI, Joannes d' "Sarakoa" +
- Paul Geuthner (664) SP.Phil, 130 +
- maximok - (1712) ES.EHast, 165 +

(...)

Erromarrek bereziki estimu handia egiten zuten bere hitzkuntzaz, ezen lekhu, eta denbora guztietan berek berea ohoratzen zuten, eta bertzek ere ohora zezaten egin ahalaz entsejatzzen ziren; hargatik grekoei ihardetsi behar ziotenean, errespustak latinez emaiten ziotzaten, eta oraino etzituzten entzun nahi, non latinez edo interpretez etziren mintzatzzen: etzuten hau xoilki egiten \*Erroman baina bai oraino \*Grezian eta \*Asian ere, bide hartaz bere hitzkuntza latina hobekiago errespetaratzeko, eta jendaki arrotzetara hedaratzeko, \*Valerio \*Maximok dioen bezala erraiten du \*Suetonio \*Franquiloc ere: qq

(...)

Datu horiek gehienak beste egile batzuen lanetatik heldu dira eta, datuekin batera, bakoitzaren jatorriaren aipamen zehatza egiten da (egilea, lana, orrialdea...).

Ikertzaile askoren ekarpenak hartu ditu aintzat Euskaltzaindiak zeregin honetan, hartu behar dituen erabakiak hartzeko, baliozkoak eta argigarriak direla ulertzen duelako eta erabaki horiei oinarri sendoa jartzen dietelako. Aipamenak oso modu zehatzean egiten dira, ikerketa horien egileei jabetza eskubideak beren-beregi onarturik betiere.

### **i** Lege-oharra

Corpus onomastiko honetan, hirugarrenen lanen edukiak sartu dira, arloan ospea eta gaitasuna dutelako. Ondorio horretarako, behar diren baimenak eta lizentziak eskatu ditu Euskaltzaindiak, eta, horrenbestez, behar diren jabetza intelektualeko eskubideak eskuratu, oker edo hutsik ezean. Edukiren batek hirugarrenen eskubideak hausten dituela uste baduzu, eman iezaiozu berehala horren berri Euskaltzaindiari (honako helbide elektronikoko honetara idatziz: info@euskaltzaindia.eus), beharrezko neurriak berehala har daitezten.

Espero dugu *EODA* berria erabilgarri suerta dadin eta erabiltzaileen gustuko.



# PERTSONA-IZENDEGI BERRITUAREN AURKEZPENA

PASKUAL REKALDE  
Euskaltzaindia  
prekalde@euskaltzaindia.eus

## 1. SARRERA

Erraten ahal da, ez bairik gabe, Euskaltzaindiak bere garaian erabaki zuela pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak bildu eta jende aitzinean paratzea eta, honekin batera eta bidelagun, datutegi horretako edukia bilatzeko tresna azkar eta zorrotza ororen esku uztea, ordura arte paperean bakarrik zeuden edukiak errazago aurkitzeko eta aztertzeko.

Aurkezpen honek hiru zati izanen ditu. Lehenik, orain zer dugun erakutsiko dut (pertsona-izen-degiaren ezaugarri nagusiak, datuen iturriak eta izenaren egitura orokorra). Segidan, hemendik aitzina zer izanen dugun azalduko dut (izen-degi berrituaren euskarria, izenen sailkapena —oraingoa eta hemendik aitzinakoa— eta izen-degiaren edukia —gaur artekoa eta gaurtik aitzinakoa—, atzendu gabe, jakina, izenaren egitura berria). Akitzeko, etorkizunean egiteko ditugunak ere agertuko ditut.

Erran dezadan izen-degi berritua erabiltzaile oroendako prestatu dela, dela guraso, dela erregistro zibiletako langile, dela historialari, dela ikertzaile... Ez da, beraz, gaztelaniazko eta frantsesezko ordainak dituen euskarazko izenen bilduma soil bat. Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak haratago joan nahi izan du.



## 2. ORAIN ZER DUGUN PERTSONA-IZENDEGIAN

### 2.1. Pertsona-izenegiaren ezaugarri nagusiak

Hemezortzi urte gibelat egin behar da (2001) euskal pertsona-izenak liburu mardul batean ikusteko. *Euskal Izendegia* hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) argitaratu zen eta, emakumezkoen eta gizonezkoen izendegiekin batera, pertsona-izenen historia eta euskal izendegia gauzatzeko erabilitako irizpideak bildu ziren<sup>1</sup>.



<sup>1</sup> Euskaltzaindia-Eusko Jaurlaritza (2001). *Euskal Izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms.*

Lan hori ez zen bere horretan gelditu. Urteak joan urteak etorri, Onomastika batzordeak lanean segitu zuen eta izendegian izen berriak emendatzen joan ziren, ez paperean, euskarri digitalean baizik. Xede horri begira sortu zen 2011n *Euskal Onomastikaren Datutegia* (EODA). Datutegi honetan pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak (Euskal Herrikoak eta Euskal Herritik kanpoko batzuk) biltzen dira.

The screenshot shows the website interface for 'Pertsona-izenak' (Personal Names). The header includes the Euskaltzaindia logo and navigation links like 'Webgune osoan', 'Idatzi hemen zer bilatu nahi duzun', and 'AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA'. The main content area is titled 'IZENAK - EODA' and features a quote: 'Atal honetan, lehenengo eta oraingo euskal pertsona-izenak daude. Helburu nagusi hauek ditu datutegi honek: gurasoei laguntza ematea, haur jaioberritari euskal izen zuzena jarri ahal izateko; izena aldatu edota euskarazko idazkera zuzenera egokitu nahi dutenei informazio argigarria eskuratzeko; izen baten nondik norakoak ezagutu nahi dituenarentzat datu-iturri oparo izatea; izen klasiko eta historikoak euskal aldaerak ezagutu edo erabili behar dituenari informazioa ematea.' Below the quote is a 'Lege-oharra' (Legal notice) section with an information icon and text: 'Corpus onomastiko honetan, hirugarrenen lanen edukiak sartu dira, arloan ospea eta gaitasuna dutelako. Ondorio horretarako, behar diren balmenak eta lizentziak eskatu ditu Euskaltzaindiak, eta, horrenbestez, behar diren jabetza intelektualeko eskubideak eskuratu, oker edo hutsik ezean. Edukiren batek hirugarrenen eskubideak hausten dituela uste baduzu, eman lezaiozu berehala horren berri Euskaltzaindiari (honako helbide elektronikoa honetara

## 2.2. Iturriak

*Euskal Izendegia* egiteko iturri zaharrago batzuk erabili ziren, bereziki honako hauek: Sabino Aranaren eta Luis Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarra* (1910), Aingeru Irigaraireren *Euskaltzaindiak onartutako euskal izenlerroa* (1966) eta Jose Mari Satrustegiren *Euskal Izendegia* (1972, 1977, 1983). Eta horiei guzietan gehitu behar zaizkie onomastikako eta exonomastikako arauetako hainbat izen eta Onomastika batzordeak euskal izentzat emandakoak.

### 2.3. Izenaren egitura orokorra

EODAn pertsona-izenen atalean sartuz gero, izenak aurkituko ditugu eta izen horietako bakoitzean honako datu nagusi hauek: izena, generoa, (emakumezkoa edo gizonezkoa), euskal izenaren gaztelaniazko eta frantseseko izen baliokideak eta euskarazko izen horien (ez guzien) gaineko azalpenak, euskaraz eta gaztelaniaz. Azalpen horietan datu historikoak, linguistikoak, mitologikoak... ematen dira eta, batzuetan, izenaren aldaerak, erraterako: *Joan* (euskaraz): *Juan* (gaztelaniaz), *Jean* (frantsesez). Aldaerak: *Joanes*, *Joango*, *Joanikote*, *Joanis*, *Jon* eta *Ganiz*.

EUSKALTZAINDIA  
EUSKAL OINARRITUTAKO ELIZKOLA

Webgune osoan -

Q

EUSKALTZAINDIA ▾
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾
ARGITALPENAK ▾
MENDEURRENA

## Pertsona-izenak

🏠 / Hizkuntza-baliabideak / Onomastika / Pertsona-izenak

Bilaketa

Bilatu

Zerrendak

[Emakumezkoen izenen zerrenda >](#)  
[Gizonezkoen izenen zerrenda >](#)  
[Izen epizenoen zerrenda >](#)

### EODA - BILAKETA

8 emaitza Antonio bilaketarentzat [1 - 8]

---

Antonio

Antonio (es), Antón (es), Antoine (fr), Antony (en), Anthony (en), Antonius (la)

Erromako familia baten izena zen *Antoniusetik*; latinez erabili arren badaiteke etorkiz etruskoa izatea. San Antonio abadea Egipton bizi izan zen IV. mendean eta oso ezaguna da basamortuan zegoenean deabruak pekatuan erorarazteko egindako ahaleginel eusteagatik. Santuaren egunak ekainaren 13an (Paduakoa) eta urtarrilaren 17an (abadea) dira. Aldaerak: Anton eta honen hipokoristikokoak diren *Antton* eta *Antxon* eta *Andoni*. Euskal Herrian oso ezaguna da Urkiolako (Bizkaia) ospatze-eguna, besteak beste ezkongalak ezkontide eske joaten direlako.

Dokumentuak:

- [▶ 66. araua: Santutegiko izen ohikoenak \(2019\)](#)
- [▶ 76. araua: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak \(2014 \[1997\]\)](#)

Anttonio (Hipokoristikoa)

---

Txanton

---

Txantxon (Hipokoristikoa)

---

Iragazkiak

### 3. HEMENDIK AITZINA ZER IZANEN DUGUN PERTSONA-IZENDEGIAN

#### 3.1. Izendegi berrituaren euskarria

Urte batzuk dira Euskaltzaindiak erabaki zuela argitaratutako materiala euskarri digitalean ere argitaratzea. Batzuetan paperezko euskarriak erabat alde batera utzi gabe, pixkanaka-pixkanaka izendegiak euskarri digitalean (banaketa-zerrendak, PDFak...) eta sarean (datu-baseak) hasi zen argitaratzen. Xede bat eta bakarra: izendegi ireki eta dinamikoa egitea, erabilerraza, azken finean.

#### 3.2. Izenak nola sailkatzen diren orain

Erraten ahal da euskarak izen batzuk erabiltzen dituela gizonezkoak izendatzeko (*Andres, Lukas...*) eta beste batzuk emakumezkoak izendatzeko (*Edurne, Helena, Teresa...*). Badira, ordea, tradizioz genero-mozioa izan duten izenen salbuespen batzuk eta horietako gehienak santutegian daude, erraterako, *Bizente / Bizenta, Joanes / Joana, Paulo / Paula, Petri / Petra...*

Bestalde, hitz arruntetatik eta toponimoetatik hartutako pertsona-izenen sexu-bereizketa tradizioari segituz egin da (kontuan izan behar da izen arruntek euskaraz ez dutela genero gramatikalik).

#### 3.3. Izenen sailkapen berritua

Hori dela-eta, printzipioz, sailkapen hau egin izan da orain arte<sup>2</sup>:

- Kontsonantez eta *-i*, *-o* eta *-u* bokalez amaitutakoak gizonezkoztat ematen dira: *Haritz, Ibai, Paulo, Aingeru*.
- *-a* eta *-e* bokalez amaitutakoak emakumezkoztat ematen dira: *Amaia, Ane*.

Nolanahi ere, salbuespenak izan badaude:

- Andre Mariaren santutegiak direlako, emakumezko izentzat ematen dira: *Aitziber, Irantzu, Izaskun...*

<sup>2</sup> Urteen joanak erakutsi du sailkapen hau aldatu beharra zegoela, parte batean bederen zaharkitua gelditu delakoz.

Eta hemendik aitzina, zer? Izenak, nagusiki, bi multzo handitan sailkatzea erabaki da. Izenak, eskuarki, ez-epizenoak eta epizenoak izanen dira.

### 3.3.1. Genero-marka duten izenak: izen maskulinoak eta izen femeninoak (izen ez-epizenoak)

Honako izen hauek genero-marka dute, izen maskulinoak eta izen femeninoak dira edo, bertzela erranik, izen ez-epizenoak dira.

- Santu- eta santa-izenak.
- *Deun-ixendegi euzkotarra* liburukoak.
- Jatorriz pertsona baten izengoititik datozen izenak.
- Euskal Herriko dokumentazio historikoan ageri diren izenak
- Izen mitologikoak.
- Andre Mariaren adbokazioak.
- Ama Birjinaren ermita direnak.
- ...

### 3.3.2. Genero-markarik ez duten izenak (izen epizenoak)

Honako izen hauek ez dute genero-markarik. Izen epizenoak dira<sup>3</sup>.

Hartara, izen epizenotzat har ditzakegu izen arruntak (*Adats, Amets, Haize, Iraultza, Itzel...*) eta leku-izenak (*Abodi, Aiuri, Amaiur, Araitz, Gorbeia, Joar, Larraine, Luzaide, Muxika, Udalatx...*).

## 3.4. Izendegi berrituaren edukia

### 3.4.1. Gaur artekoa

Pertsona-izendegia osatzen dute, besteak beste, *Euskal Izendegia* (2001) argitalpeneko izenek eta Onomastikako eta Exonomastikako zenbait arautako izenek. Arau horiek honako hauek dira:

- Santutegiko izen ohikoenak (66. araua) [1996, 1997]
- Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak (76. araua) [1997 - 2014]

<sup>3</sup> Izen epizeno bat euskaraz genero-marka maskulinorik edo femeninorik ez duen izena da, izen neutro ere deitu izan dena.

- Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak (82. araua) [1998 - 2014]
- Aita santuen izenak (129. araua) [2003]
- Alfabeto ziriliko idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema (156. araua) [2009]
- Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak (163. araua) [2011]
- Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (I). Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia (175. araua) [2013-2014]
- Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II). Antzinateko Egipto (176. araua) [2014]
- Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III). Bibliako pertsona-izenak (177. araua) [2014]

### 3.4.2. Gaurtik aitzinakoa

Honako hau erakutsiko da EODAn:

- EODAn gaur arte egon dena, berritua eta emendatua.
- Euskaltzaindiak ziurtagiri bidez euskal izentzat emandako izen berriak (horietako izen anitz ez da EODAn ageri).
- Izen txikigarriak edo hipokoristikoak; lehenago zeuden bakan batzuei bertze batzuk gehitu zaizkie.
- Izen epizenoak.

#### 3.4.2.1. Orain arte EODAn zer dagoen

EODA 2011n abian jarri zenetik ez da aldaketa sakonik egin datu-basean. Egoera hori gogoan ekin zitzaion 2018an datu-basea berritzeari, informazioa berrantolatzeko, gaztelaniazko eta frantsesezko ordain batzuk zuzendu eta zenbait kasutan ingelesezkoak gehitzeko eta, nagusiki, izenez gainera era dokumentalak gehitzeko<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Izena zein dokumentutan ageri den erakutsiko da.

### 3.4.2.2. Euskaltzaindiak ziurtagiri bidez euskal izentzat eman dituen izen berriak

Gogora ekarri behar da Euskaltzaindia Euskal Herriko administrazioen erakunde aholku-emailea dela hizkuntza-gaietan. Ohikoa da gurasoek halako edo bestelako izen beren seme edo alabari jarri nahi izatea eta Euskaltzaindiaren webgunera-eta jotzea, besteak beste, argibide bila. Edo zuzenean, semea edo alaba sortu ondoren, beren herriko edo hiriko erregistro zibilera joatea sortu berria inskribatzera.

Halakoetan prozedura argia da: herritarrek edo erregistro zibileko arduradunek Euskaltzaindiari eskatzen diote halako edo bestelako izen euskarazko izena den eta gizonezkoak edo emakumezkoak deitzeko egokia den. Kasuan kasuko ziurtagiria egin eta eskatzaileari igortzen zaio administrazioan bidea egin dezan. Hori egin ondoren, gorde eta EODAn gehitzen da.

### 3.4.2.3. Izen txikigarriak edo hipokoristikoak

Gorago (3.4.2.) erran dugunari jarraikiz, ahalegina egin da izen txikigarri edo hipokoristiko gehiago gehitzeko<sup>5</sup>. EODAn zeuden izen bakanei (*Antxon, Anuntxi, Bixenta, Inaxio...*)<sup>6</sup> bertze zenbait gehitu zaizkie, erraterako *Anttoni, Battittu, Felixta, Ixabel, Jexux, Joxe, Xarles...*

### 3.4.2.4. Izen epizenoak

Izen epizenoen gaia ez zaio sekula arrotza izan Euskaltzaindiari. Gizarteak egindako eskaerak -zenbait izeni sexu jakin bat ez esleitzeak- lege-oztopo argia izan du: 1957ko Erregistro Zibilaren Legea<sup>7</sup>.

<sup>5</sup> Izen txikigarri edo hipokoristiko bat benetakoa izena ordezkatzeko erabiltzen den izen laburu bat da.

<sup>6</sup> Bereziki aipatzekoak dira *Beñat, Patxi, Txomin...* moduko izen historiko eta tradizio luze-koak, gaur den egunean izen arruntzat hartzen ditugunak.

<sup>7</sup> Euskaltzaindiak, 2018ko urtarrilean, Espainiako Gobernuako Justizia Ministerioari eskatu zion izendegiarekin malguago jokatu behar zuela ezin baitzaizkio hizkuntza erromanikoetako legeak euskarari aplikatu. Hori dela-eta, euskararen ikuspegitik onargarri eta erabilgarri izan daitekeen izendegia etengabe moldatzen joan da Akademia.

Horrenbertzez, erran daiteke izendegi berri honekin egin den aldaketa bikoitza dela: batetik, kualitatiboa, aurrerapausoa baita —euskarak izen maskulinoez eta femeninoez gainera, izen epizenoak izanen ditu—, eta, bertzetik, kuantitatiboa, zernahi baitira (500 inguru) izen epizenotzat hartu diren izenak (batzuk, berriak eta, bertzeak, izen maskulino edo femeninoztat hartutakoak orain epizenotzat hartzen direnak). Argi dago erabaki honekin bidea ireki dela eta etorkizunean segida izanen duela.

### 3.4.3. Izenaren egitura berria

Hemendik aitzina EODAn izen jakin baten gaineko informazioa bilatzen duenak lehenago zituen datuez gainera bertze datu batzuk ere aurkituko ditu. Laburbilduz, hauexek dira: euskarazko izena; euskarazko izenaren izen balioki-deak gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, latinez eta grekoz<sup>8</sup>; izen bakoitzari dagokion sexua (gizonezkoa, emakumezkoa, epizenoa); izena txikigarria edo hipokoristikoa den.

Informazio horretaz gainera, izena Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak onartu duen edo Onomastika batzordearen irizpen edo gomendioa den adieraziko da, atzendu gabe izen batzuen alboan ageri diren azalpenak (oraingoz euskaraz eta gaztelaniaz), zeinetan ematen baitira izenaren gaineko datu historikoak, etnografikoak, etimologikoak eta tankerakoak.

Eta, horretaz guztiaz gainera, “Dokumentazioa” izeneko atala, orain artean erakutsi ez dena.

---

<sup>8</sup> Izen batzuek ez dituzte beti ordain guztiak izaten.



EUSKAL TZAINDIA

Webgune osoan -

Idatzi hemen zer bilatu nahi duzun

EUSKAL TZAINDIA ▾
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾
ARGITALPENAK ▾
MENDEURRENA

## Pertsona-izenak

🏠 / Hizkuntza-baliabideak / Onomastika / Pertsona-izenak

Bilaketa

Bilatu

Zerrendak

- Emakumezkoen izenen zerrenda >
- Gizonezkoen izenen zerrenda >
- Izen epizenoen zerrenda >

### EODA - BILAKETA

8 emaitza Antonio bilaketarentzat [1 - 8]

#### Antonio

Antonio (es), Antón (es), Antoine (fr), Antony (en), Anthony (en), Antonius (la)

Erromako familia baten izena zen *Antoniusetik*; latinez erabili arren badaiteke etorkiz etruskoa izatea. San Antonio abadea Egipton bizi izan zen IV. mendean eta oso ezaguna da basamortuan zegoenean deabruak pekatuan erorarazteko egindako ahaleginei eusteagatik. Santuaren egunak ekainaren 13an (Paduakoa) eta urtarrilaren 17an (abadea) dira. Aldaerak: Anton eta honen hipokoristikoak diren *Antton* eta *Antxon* eta *Andoni*. Euskal Herrian oso ezaguna da Urkiolako (Bizkaia) ospatze-eguna, besteak beste ezkongaiak ezkontide eske joaten direlako.

**Dokumentuak:**

- > 66. araua: Santutegiko izen ohikoena (2019)
- > 76. araua: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak (2014 [1997])

#### Iragazkiak

- Sexua ▾
- Hipokoristikoa ▾
- Arautze maila ▾

EUSKAL TZAINDIA

Webgune osoan -

Idatzi hemen zer bilatu nahi duzun

EUSKAL TZAINDIA ▾
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ▾
AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ▾
ARGITALPENAK ▾
MENDEURRENA

## ANTONIO - PERTSONA-IZENAK - EODA

🏠 / Hizkuntza-baliabideak / Onomastika / Pertsona-izenak

Bilaketa

Bilatu

Zerrendak

- Emakumezkoen izenen zerrenda >
- Gizonezkoen izenen zerrenda >
- Izen epizenoen zerrenda >

### ANTONIO - PERTSONA-IZENAK - EODA

#### Antonio

Antón (gaztelania), Antonio (gaztelania), Antoine (frantsesa), Antony (ingelesa), Anthony (ingelesa), Antonius (latina)

<b>Sexua:</b>	gizonezkoa	<b>Arautzea:</b>	Euskaltzaindiaren araua
<b>Hipokoristikoa:</b>	Ez		

Erromako familia baten izena zen *Antoniusetik*; latinez erabili arren badaiteke etorkiz etruskoa izatea. San Antonio abadea Egipton bizi izan zen IV. mendean eta oso ezaguna da basamortuan zegoenean deabruak pekatuan erorarazteko egindako ahaleginei eusteagatik. Santuaren egunak ekainaren 13an (Paduakoa) eta urtarrilaren 17an (abadea) dira. Aldaerak: Anton eta honen hipokoristikoak diren *Antton* eta *Antxon* eta *Andoni*. Euskal Herrian oso ezaguna da Urkiolako (Bizkaia) ospatze-eguna, besteak beste ezkongaiak ezkontide eske joaten direlako.

Dokumentazioa (175) Iruzkina Estekak (2)

Guztiak (175)
  Arautzea (9)
  Ofizialtzea (0)
  Hizkuntza azterketa (21)

- antonius maximus - (0043-0120 [1987]) DRPLV , II, 197. or. +
- antoni longini - (0043-0120 [1987]) DRPLV , II, 197. or. +
- antoni longo - (0043-0120 [1987]) DRPLV , II, 197. or. +
- antonio - (1301/01/04 [1300/06/15]) FDMPV.009 , 1. dok. 11. or. [Priv. reg. 1 n° 1, 4v] +
- antonius santius - (1391/04/20 [1482/12/20]) FDMPV.009 , 23. dok. 125. or. [FV. reg. 5, 3v] +
- antonio garcias - (1458/08/04 [1983]) FDMPV.002 , 27. dok., 65. or. +
- antonio - (1464/12/04 [1983]) FDMPV.002 , 48. dok., 99. or. +
- antonius garcias - (1466/12/20 (?) 26 (?) [1983]) FDMPV.002 , 59. dok., 117. or. +
- antonius garcias - (1466/12/20 [1983]) FDMPV.002 , 60. dok., 119. or. +
- antonius garcias - (1468/08/04 [1983]) FDMPV.002 , 68. dok., 132. or. +

#### 4. ETORKIZUNEAN EGITEKOAK

Artikulu honi akabaila emateko, erran dezadan izendegi hau ez dela lan hetsi bat, etengabe eta egunero gehituko baitira izen gehiago, dela exonomastikatik etorriko direnak, dela herritarrek eskatu eta batzordeak onartuko dituenak, dela Onomastika batzordeak egindako ikerketetatik ateratakoak.

Horretaz gainera, izenen gaur egungo euskarazko zein gaztelaniazko azalpenak ere berrikusi nahi dira eta, behar bada, osatu eta eguneratu hizkuntza zein eduki aldetik. Geroagoko utzi dira, halabeharrez, falta diren azalpenen euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko azalpenak, atzendu gabe, jakina, izenen lematizazioa.

